





BARREN  
TOKIKOM



# Itxita





JOSE LUIS MUGERTZA

Idazlea

## Auzokideak

Sasoi batean askoz gehiago ziren, baina beti egon dira gure aldamean, askotan jabetu ez garen arren. Haririk ere, egoera honek lagundu beharko luke elkarrengandik gertuago egoten, elkar hobeto ezagutzen. Izan ere, hauek beste-lako filosofia dute natura ulertzeko, barruko sentimenduak adierazteko. Hauek maitasuna erakusteko ez dute, gure antzera, bi metroko tarterik uzten, edota eskuak eten-gabe garbitzen. Gainera, hauek hauteskundeak bertan behera gelditu ezean, ez liekete abiadura handiko trenaren alde egiten dutenei txalorik joko, ezta herritarren eta langileen osasuna lehenetsi beharrean,

dirua bakarrik kontuan hartzen dutenei ere. Alabaina, hauek patxada maite dute, eta kantua (nork bere kantua), bereziki sasoi honetan, gustukoa erakartzeko, eta familia osatzeko. Dirudienez, egun hauetako la-saitasunak sekulako mesedea egingo die harremanak izateko, eta jaiotza-tasak, as-paldian ez bezala, gora egingo du. Horregatik, egun hauetan hantxe egon dira, eta egongo dira isildu gabe, goizean goizetik ilundu arte, gure kalbarioa arintzen, guk sarri askotan beraien ahotsa isilaraz-ten, edota preso dugun bitartean. Ez dakit zeuenera hurbildutako auzokide berriak nolakoak izango diren (ez dut uste oso bestelakoak izango direnik), eta hartutako gustuko lekua non izango duten, baina gu-rera etorritako batek antena parabolikoan topatu du gogoko lekua ahotsa ozentzeko, ondokoak liluratzeko, edota telebistako be-riak entzuteko, eta ez dakizue zer nolako

ahotsa duen (ba omen dago beste auzo-kide bat urrezko abots hobea duena, baina, ez dakit, bada!). Beraren gainean egindako kanta baten zatitxoa ikasi nahi baduzue, eta gero etxeko balkoian kantatu ("Atzo goizean goiz yagi nintzan, birigar-roa goizago; birigarroan kanta soinu- lo eiten dogu gozaro") Sebasek espe-txean, eta Josuk Uruguain entzun dezaten, aukera ona izan daiteke geure buruari go-gorazteko zer izan beharko den urtetan gure herritik kanpo, edota kaiola batean preso egotea, guk etxean erosotasun guz-tiak eskura izanda, horrelako drama egiten dugun bitartean. Animo, eutsi, eta esaera zaharrak dioen bezala, "Ez dago txarrik onik ez duenik", ahal dela, zorionsuak izan, nahiz eta Espainian gogoz kontra bizi izanda, eta ikusi eta gero, hildakoen kopurua Txinako baino handiagoa dela jakin, oso zaila izan.

*"Animo, eutsi, eta esaera zaharrak dioen bezala, 'ez dago txarrik, onik ez duenik'"*



BARREN

ARGITARATZAILEA:

ELGOIBARKO IZARRA  
Buzkaltzearen Topagunea

Aita Agirre Kulturgunea, 3, 3. ezk. - 20870 ELGOIBAR  
943 744 112

Publizitatea: 943 743 704

[barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

[barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

[www.barren.eus](http://www.barren.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Hitz eta klik eta eskutitzak ataletan adierazitako en-antzikizunik. **KOORDINATZAILEA** Ainhoa Andonegi **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Ainara Argoitia **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA/DISEINATZAILEA** Zalao Arnaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Ibon Serrano, Eire Vila, Manu Sanchez, Iosu Juaristi, Iñigo Lamelas, Edurne Izagirre, Paula Heras, Enez Ezenarro, Ane Astiazaran, Irati Agirreazaldegui, Jone Olai-zola, Juan Luis Mugertza, Izaro Etxegibel, Iñigo Otaño, Iñaki goitia, Jose Ramon Cabrera, Alex Segade **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.885 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia

M

## Urriaren 23ra atzeratu dute 'Zaldi urdina' antzezlanaren emanaldia

Elgoibarko Udaleko Kultura Sailak jakinarazi du urriaren 23an emango dutela Herriko Antzokian joan den martxoaren 13an bertan behera laga behar izan zuten *Zaldi urdina* antzezlanaren emanaldirako sarrerak erosita zituztenek bi aukera dituzte: batetik, urriaren 23rako gorde ditzakete, edo bestela, Herriko Antzokia berriro zabaltzen dutenean txarteldegian eskatu ahal izango dute sarreragatik ordaindutako dirua bueltatzeko.



## Santa Klara komentuk ez dituela etxegabeentzako gutxieneko baldintzak betetzen adierazi du Udalak

Santa Klara komentua etxegabeentzat irekitzeko hainbat herritarrek eginiko eskaeraren harira, egoitza horrek ez dituela gutxieneko segurtasun eta osasun baldintzak betetzen erantzun du Elgoibarko Udalak, eta gaineratu du Udalak ez duela inor kaletan uzten. Gizarte zerbitzuetako profesionalek herritarrei beharrezko laguntza eta arreta guztia eskaintzen dietela esan du, eta kasu hauetan, beste erakunde eta gizarte eragile batzuekin elkarlanean, udaleko gizarte zerbitzuek pertsona hauen azterketa pertsonalizatua egiten dutela, konfinamendua betetzeko ostatu aukerak eskainiz. Gogoratu du, bestalde, Gipuzkoako Foru Aldundiak 400 plaza egokitu dituela lurraldeko aterpetxeetan adineko pertsonak, etxerik gabekoak eta bakarrik dauden adingabeak hartzeko. Nagore Cid elgoibartarra izan da komentua etxegabeentzako eskatzeko ekimenaren sustatzaileetako bat. *Change.org* plataforman 500 sinadura bildu dituzte dagoeneko, eta esan du mila lortzea dutela helburu.



Mendaron, bestalde, Azpilgoetako kultur etxean egin die lekua Udalak gaua Trinitateko elizpean pasatzen zuten bi etxegaberi. Gurutze Gorrikoak emandako ohatilak eta mantak eraman dituzte Kultur Etxera eta eguneko zentroko langileek eramaten diete jana eta gainerako oinarrizko kontuak.

## Negoio txikiei digitalizatzen lagunduko die PuntuEus-ek



Covid-19ak eragindako osasun krisiaren ondorioz, aurrez aurreko jarduerak guztia eten da, eta horren aurrean, PuntuEus fundazioak ostalari, merkataria eta artistei laguntzeko *Ireki ate berri bat* izeneko ekimena abiatu du. Besteak beste, webgunerik ez duten negozioek eta profesionalek urtebeterako doan eskuratu ahal izango dituzte .eus domeinua eta zerbitzaria. Horrez gain, domeinu-izena duen helbide elektronikoa ere eskuratu dute programan parte hartzen dutenek. Horri esker, euren online presentzia indartu ahal izango dute eta jarduerak Internet bidez kudeatzen jarraitu, besteak beste, enkarguak jaso edo eskaintzen dituzten zerbitzuak ezagutzera eman. Interesatuak [www.domeinuak.eus](http://www.domeinuak.eus) webgunean.

## Maskarak egiten ari dira IMHn, 3D inprimagailuekin

IMH ikastetxeak ere bat egin du Jaurlaritzak Tknikaren bitartez sustatu duen COVIDEUSKADI ekimenarekin, eta 3D inpresorak erabiliz, osasungintzako langileak babesteko materiala sortzen ari dira. Eskerrak eman dizkiete Lanbide Heziketako eta Fabrikazio Aditiboko espezializazio arloko irakasle eta profesionalei, egiten ari diren lanagatik, hartutako konpromisoagatik eta ahaleginagatik, eta baita boluntario gisa ekimenarekin bat egin duten ikastetxe gainerako profesionalei ere.







## Olaizagako igerilekuetan mantentze lanak egin dituzte, itxita daudela aprobetxatuta

Udal Kirol Patronatuak hainbat garbiketa lan egin ditu Olaizaga kiroldegiko igerilekuetan, koronabirusagatik ezarritako alarma egoera dela eta, kirol instalazioak itxita daudela aprobetxatuta. Egiten ari diren lanen artean, uraren zinkinkeria filtratzen duten hari-iragazkiak ordezkatu dituzte, arazketa hobetzeko eta uraren kalitate ona bermatzeko. Halaber, balbulak ere berritu dituzte, igerilekuak hustu dagozkion garbiketa eta desinfekzio lanak egiteko, eta gainazaleko plakak lotu eta gainezkabideak margotu dituzte. Normalean abuztuan egiten dituzte mantentze lan hauek.



### Ikastaroen kuotak

Udal Kirol Patronatuak jakinarazi du, bestalde, ikastaroen kuotak ez dituela kobratuko jarduera berriz martxan jarri arte. Era berean, martxoko ikastaroei dagokien kuoten eta abonua zati proportzionala itzuliko dituzte. Egoera hau amaitzean, Udal Patronatuak abonuen inguruko konpentsazio neurriak zehaztuko ditu eta bazkideei jakinaraziko die.

## San Lazaro egoitza desinfektatu dute suhiltzaileek



Adinekoena da kolektibo zaugarriena, eta haien osasuna ahalik eta gehien babesteko asmoz, Eibarko suhiltzaileek desinfekzio lanak egin zituzten joan zen astean San Lazaro egoitzan. Gune komunak eta egoiliarren joan-etorri handieneko guneak desinfektatu zituzten: egoitzaren kanpoaldea, eskailerak, aretoak, komunak, bulegoak, sarrera... Elgoibarko Udalak eskerrak eman dizkie, oro har, Elgoibarko herritarrei, Espainiako Gobernuak alarma egoera ezarri zuenetik izaten ari diren jarrera ulerkorragatik.. Ildo honetan, Udalak erantzukizunez jokatzeko eskatu du; osasun agintarien jarraibideak eta gomendioak jarraitzeko, alegia..

Anbulatoriora deitu behar dute arnasa hartzeko zailtasunak dituztenek

Eztula, arnasa hartzeko zailtasunak edo sukarra duten lagunek, alegia, COVID-19arekin bat datozen sintomak dituztenek, Elgoibarko ambulatortara deitu beharko dute, eta beharrezkoa den kasuetan ezarritako erreferentziarako zentroetara bideratuko dituzte gaixo horiek. Elgoibarko ambulatortako telefonoa 943 032 610 da. Bestalde, alarma egoera hau ezarri aurretik zehaztutako kontsultetara ez joateko eskatu die Osasun Sailak herritarrei. Mediku beharra daukanak bere ohiko osasun etxe edo ambulatortara deitu behar du, eta handik zuzenduko dute deia zuzendu beharreko lekura.

Koronabirusa uxatzeko, Koronamaloa

Koronabirusa uxatzeko eta konfinamendua arintzeko, Koronamaloak egiteko deia egin du Mendaroko Arno Guraso elkarteak, Udalarekin elkarlanean. Familian koronamaloa egin eta leiho edo balkoietan zintzilikatzea da asmoa. Ondoren, argazkiak atera eta [kultura@mendaro.eus](mailto:kultura@mendaro.eus) helbidera bidali daitezke. Konfinamendua amaitzen denean, erakusketa bat egingo dute jasotako argazki guztiekin. Ez da lehiaketa izango, eta parte hartzen duten ume guztiek jasoko dute oparixoren bat.



## Etxealdian kalera irten ezinda dauden ume guztiak omendu dituzte



Euskal Herri osoko balkoi eta leihoetara txalo egitera irteteko deia egin zuten zapaturako, etxealdian kalera irten ezinda dauden ume guztiak omentzeko, eta gurean ere entzun ziren txaloak. Askok kolorezko puxikekin apaindu zituzten balkoiak. Argazki gehiago eta bideoa *barren.eus* atarian dituzue. Era berean, autismoa dutenei babesa agertzeko, kolore urdineko elementuren bat jartzeko deia ere egin zuen Marea Urdina elkarteak. Autismoa dutenei kalera irteteko baimena eman zien Espainiako Gobernuak, beti ere koronabirusaren kontrako gomendioak errespetatuz. Hala egin dutenetako batzuek, baina, irainak eta bestelakoak jasan behar izan dutela salatu dute, eta horren kontra egiteko izango da ekimen hau.

## Organikoaren eta errefusaren edukiontzietan pedalak jarriko ditu Mankomunitateak

Debarrenenako Mankomunitateak neurri berriak hartu ditu koronabirusak eragindako alarma egoeraren aurrean, eta horri lotuta, astelehenean pedalak jartzen hasi ziren errefusaren eta organikoaren edukiontziei. Guztira, Debarreneneko 306 edukiontzitan jarriko dituzte pedalak, eta ia 84.000 euroko inbertsioa egingo dute. Koronabirusagatik kutsatu gehien dauden herrietan hasiko dira aurrena: Eibar, Elgoibar, eta Ermua. Gainerako asteetan hasiko dira eskualdeko gainerako herrietan edukiontziei pedalak jartzen, eta apirilean zehar bukatuko dute lana. Iosu Arraiz Mankomunitateko presidentek honakoa esan du: "Neurri honekin herritarren segurtasuna bermatuko dugu epe motzean eta epe luzera, hiri-hondakin solidoen edukiontzia egokituta, erosoago zabaldu ahal izango ditugu, bereziki mugikortasun urriko pertsonen eta auzotar adinekoen". Horrez gain, joan zen astetik edukiontzirik zabalik daude, eta Mankomunitateetik herritarrei eskatu diete zabor poltsak ez lagatzeko lurrean.



## Tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko hainbat ekimen abiatu dituzte

Maskara 19 egitasmoa abiatu dute Hego Euskal Herriko farmaziek, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei laguntzeko. Konfinamentua beraien erasotzailearekin bete behar duten emakumeen egoera arintzea du helburu egitasmoak. Emakumea botikara joan eta maskara 19 hitza erabiltzen badu, botikariak berehala aktibatuko du tratu txarren protokoloa.

Elgoibarko Udalak, bestalde, *Elgoibarren Gertu* zerbitzua eskainiko du alarma egoerak irauten duen bitartean indarkeria matxista jasateko arriskua duten emakumeei laguntzeko. 688 804 672 telefono zenbakia ahalbidetu dute, eta goizeko 7:00etatik gaueko 21:00etara egongo da erabilgarri, bai deiak egiteko, eta baita deiak jasotzeko ere, emakumeekin adosten diren ordu eta egunetan. WhatsApp ere jaso ahal izango dira. Indarkeria matxistaren egoerei aurre egin behar dieten emakumeei laguntza emozionala emango diete, bai egoera horiek alarma egoera baino lehen gertatzen zirelako edo bai egoera honen baitan sortu direlako. Era berean, Udalak gogorarazi du, Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Politiketako Sailak etxeko indarkeriaren edo sexu-erasoen biktimak izan diren emakumeentzako informazio eta arreta-zerbitzua eskaintzen duela 900 840 111 telefonoan.

## 'Ideiak etxean elkarlanean' egitasmoa sortu du Mendaroko Udalak etxealdia arintzeko

*Ideiak etxean elkarlanean* egitasmoa sortu du Mendaroko Udalak konfinamendu aldia eramangarriagoa egiteko. Koronabirusak eragindako alarma egoeran, etxealdia "probetxuzkoa eta dibertigarria" izan dadin, egunean jarduera bat proposatuko dute Udaletik, astelehenetik barrikura. Udalaren webgunean zintzilikatzen dituzte proposamenak eta herritarrei eskatu diete sare sozialen bidez zabaltzeko etxean eginda koen emaitza *#Mendaroideiaketxeanelkarlanean* traola erabilia.



## Alzolak 50.000 ur botila emango dizkie Osakidetzari eta Gurutze Gorriari



Plentillako langileen erdiari eragiten dion aldi baterako lan erregulazio espediente (ABLEE/ERTE) ezarria dute Alzola Basque Water enpresan, salmentak asko jaitsi direlako. Hala eta guztiz, koronabirusaren aurkako borrokan ahal duten moduan laguntzea erabaki dute, eta 50.000 ur botilako dohaintza egingo dute apirilean, Osakidetzak eta Gurutze Gorriak eginiko eskariei erantzuteko. Ospitaleetako langile eta gaixoen artean banatuko dituzte ur botilak, eta baita Bizkaiko Gurutze Gorriak etxegabe eta behar larrienean dauden lagunentzako ireki dituzten behin-behineko zazpi aterpetxeetan ere. Aurki, Gipuzkoako Gurutze Gorriari ere emango dizkio ur botilak Alzola Basque Water enpresak, Erantzun Azkarreko Emergentsia Taldeko kideei, hain justu ere.

Euskara alorreko dirulaguntzak onartu ditu Elgoibarko Udalak

Elgoibarko Udalak dirulaguntzak eskainiko ditu 2020an herrian euskara sustatzeko. Bestek beste, Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko eta barnetegietarako laguntzak eskainiko dituzte. Laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 25a izango da. Era berean, UEUK, EHUk eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko dirulaguntzak ere emango dituzte, eta baita herriko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko. Azkenik, enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko laguntzak ere egongo dira.

Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da eta interesdunek dagoeneko eskabideak aurkez ditzakete. Konfinamendu egoerak irauten duen bitartean ezingo dira eskaerak Herritarren Arreta Zerbitzuan bideratu, beraz, emailaz ([euskara@elgoibar.eus](mailto:euskara@elgoibar.eus)) edo telematikoki egin beharko dira.

## CD Elgoibar txapeldun, Hirugarren Mailako futbol taldeek jokatu duten FIFA20 txapelketan

Futbol zelaiak zapaltzea debekatua dagoen sasoiak bizi ditugun arren, CD Elgoibarrek garaikur berri bat eskuratu du, berezietan berezientakoa, ehun urtetik gorako historian eskuratu dituen artean: Hirugarren mailako taldeen artean Fifa20 txapelketako garaikurra.

Haundiko jokalaria den Jon Casadori esker irabazi du garaikurra C.D Elgoibarrak. Ohorezko Mailan diharduten 32 futbol taldek hartu dute parte, online, FIFA20 bideo jokoa, kanporaketa erara. Jokalari bakoitzak bere taldearen jantzien antzekoena zen taldea aukeratu behar zuen, eta Jon Casadok Ajax taldea aukeratu zuen. San Prudencio taldeko ordezkariari irabazi zion lehen kanporaketa, Touring taldea kanporatu zuen gero, eta finalerdietan Antzuolako San Viator taldea kanporatu zuen. Finalean Getxoko taldeari irabazi zion. C.D. Elgoibarretik jakinarazi dutenez, talde barruko FIFA20 txapelketa hasi dute oraintsu.



Hipotekaren moratoria eskatzeko tramiteak erraztuko ditu Elgoibarko Udalak

Covid-19aren izarriak eragin dituen ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko hartu diren neurrien artean, ohiko etxebizitza erosuko eskatu den hipoteka-zorraren moratoria eskatzeko aukera dago. Horretarako, etxean erroldatuta dauden pertsonen errolda egiaztagiria behar da. Hori dela eta, Elgoibarko Udalak ezohiko prozedura bat onartu du, herritarrei egiaztagiri hori egin eta e-mail bidez helarazteko. Honenbestez, Elgoibarko bizilagun guztiek egiaztagiri hau eskatu ahal izango dute [arreta@elgoibar.eus](mailto:arreta@elgoibar.eus) helbidera e-posta bat bidalita. Agiria bete, sinatu eta etxebizitza horretan bizi diren 16 urtetik gorako pertsona guztiak identifikatzen dituzten agiriak erantsi behar dira.



# Koronabirusaz kutsatuta



## ARANTZA APRAIZ

### ◆ Noiz hasi zinen sintomak igartzen?

Martxoaren 7an Benidormera joan ginen, eta laupabost egunetara sekulako gorputzeko mina sentitzen hasi nintzen. Senarrari esan nion koltxoia-rena edo izango zela, baina hezurretako min itzela igartzen nuen, eta

gerora, jateko gogo gutxiago igartzen hasi nintzen. Ni seguru nago han kutsatu nintzela. Egunetik egunera okerrago jartzen hasi nintzen. Hilaren 14an konfinamenduaren agindua ere etorri zen, eta etxera itzuli nahi genuen, baina jende guztia gu moduan zegoen eta ez zen erraza izan itzulerako txartelak lortzea. Azkenean, domeka [martxoaren 15] gauean hartu genuen autobusa, eta astelehen goizean iritsi ginen etxera. Oso bidai txarra egin genuen. Ni ez nengoen ondo, eta autobusean ni bezala egongo ziren asko. Eztul pila bat entzuten ziren, jendea zapiarekin aurpegia estalita... nazka izugarria ematen zidan. Hori izan da eduki dudana beste sintoma bat; usainek nazka ematen zidaten.

### ◆ Zein pauso jarraitu zenituen Elgoibarrera iristean?

37,5eko tenperatura neukan etxera iritsi nintzenez, eta ohera sartu nintzen zuzenean. Dardarka iritsi nintzen, gorputzeko eta buruko minez eta ezer jan ezinda. Ez neukan ezertarako adorerik. Martitzen goizean deitu nuen anbulatoriora. Nire buruan baneukan koronabirusa izango zen susmoa. Benidormen jende multzo handien artean ibili ginen, eta pentsatu nuen han kutsatu izango nintzela. Erizainak deitu zidan eta nire historiala ikusita esan zidan ez neukala aparteko arriskurik, beraz, etxean geratzeko. Medikuek ere deitu zidan, eta esan zidaten tenperatura kontrolatzeko, 38ra iristen bazen sukarra, deitzeko berriz, baina zorionez, ez dut beharrik izan. Maskara baten, eta isolamendua nola egin behar nuen azaltzeko orri baten bila senideren bat bidaltzeko esan zidaten.

### ◆ Eta, zein agindu jaso dituzu isolamendurako?

Konfinamenduaren konfinamendua izan da hau. Nire senarrarengandik bi metrora ibiltzeko esan zidaten, eta denbora guztian maskara jantzita erabiltzeko, ohe desberdinetan lo egiteko, higiena asko zaintzeko, eskuak garbitzeko, ukitzen nituen gainazal guztiak ondo desinfektatzeko eta ontzi garbigailuaren tenperatura ere altxatzeko.

### ◆ Eta, zer moduz moldatu zarete?

Ondo moldatu gara. Bakoitzak logela baten egiten dugu lo, eta bakoitzak komun bana erabiltzen dugu. Bazkaria neuk pres-

Datu ofizialen arabera, 29 herritar zeuden eguaztenean koronabirusaz kutsatuta Elgoibarren eta Mendaron, baina askoz gehiago dira koronabirusaren sintomekin etxean isolatuta daudenak, gaixotasuna baieztatzeko probarik egin ez dieten arren. Hiru kasu jaso ditugu orriotan, eta bakoitzak bere esperientzia kontatu digu.

- AINHOA ANDONEGI-

*“Ematen dituzten datuak ez dira errealak, ez dituztelako probak egiten, eta benetan askoz gehiago dira kutsatuta daudenak”*

tatzen dut, baina bazkaldu aparte egiten dugu. Alaba edo semea etortzen dira jatekoa edo botikak ekartzera, eta atean uzten digute dena, eta zaborra ere eurak ateratzen digute. .

### ◆ Beldurrik sentitu al duzu?

Ni hipokondriako samarra naiz, eta egia da momentu batzuetan beldurra pasatu dudala, bai. Nik inoiz ez dut ezer eduki biriketara, eta baneukan beldurra, baina zorionez, ez dut konplikaziorik izan. Nik uste dut senarrak ere pasatu duela gaixotasuna. Nik baino sintoma arinagoak izan ditu, baina honek ere pasatu du, nirekin batera. Eta senarrarengatik baneukan kezka, 86 urte dituelako. Medikuari ere esan nion kezka hori neukala, eta esan zidan sintomak okertzen baziren, deitzeko. Zorionez, hobera egin dugu biok, baina gu ez gaituzte bisitatu ez medikuak eta ezta erizainak ere. Dena nik kontatzen nien telefonoz, eta horren arabera hartzen zituzten erabakiak. Guk paracetamol hartu dugu bakarrik. Likido asko edateko esan ziguten, beroa bazen hobe, eta etxean hotzik ez pasatzeko, tenperatura epela hobe zela.

### ◆ Orain zer moduz zaude?

Sukarra joan zenetik, hobeto nago. Dena dela, erizainak esan zidan ondo sentitzen naizen egunetik aurrera beste 14 egun jarraitzeko isolatuta, orain arteko neurri berberak hartuta, besteak kutsatzeko arriskua egon daitekeelako. Medikuek ere ez dakite zenbat egunez irauten duen arrisku horrek, momentuz aztertu dutenarekin badirudi bi astez irauten duela, baina ez daude seguru. Galdetu nien behin gaitza pasata berriz kutsatzeko aukerarik ote daukagun, baina hori ere ez dakite. Dena berria da, eta egunetik egunera ari dira medikuak ere gauzak ikasten. Niri ez didate probarik egin jakiteko positiboa naizen, baina koronabirusaren protokoloa ezarri didate, eta ni bezala beste pila bat egongo dira etxeetan isolatuta. Ematen dituzten datuak ez dira errealak, ez dituztelako probak egiten, eta benetan askoz gehiago dira kutsatuta daudenak.

### ◆ Etxean geratzea omen da irtenbide eraginkorrena. Zer esan nahi diezu herritarrei?

Gera daitezela etxean, horrela egotea baino askoz hobe delako etxean egotea. Aspertuta egongo dira batzuk, baina nik lehenengo egunetan aspertuta egon nahi nuen, eta ezin nuen. Hain nengoen gaizki...



## ZIGOR ESNAOLA

### ◆ Zer moduz zaude?

Orain ondo. Lau egun daramatzat [ostirala, martxoak 27] sukarrrik gabe, eta askoz hobeto sentitzen naiz. Oraindik nekatuta, baina lasai eta animoso nago. Ez dut aparteko konplikaziorik eduki eta gaixotasunak ondo eboluzionatu du.

### ◆ Zer sintoma igarri zenuen?

Sukarrarekin hasi nintzen martxoaren 13an, eta badaezpada etxean geratu nintzen. Ordurako IMHn eskolak etenda zeuden, ikasleak etxean, eta ni ere telelanerako prestatuta nengoen. Osasun Sailak jarritako telefonora deika aritu nintzen, baina ez zidaten telefonorik hartzen, eta azkenean Eibarko Ospitalera deitu nuen. Erizain bati kontatu nion nire egoera, eta momentuz lasai hartzeko esan zidan. Gero egun batzutan ez nuen ezer eduki eta pentsatu nuen pasatu zela eta ez zela ezer izango, baina handik egun gutxira berriz hasi zitzaidan tenperatura igotzen. Orduan ambulatorioko medikuarekin jarri nintzen harremanetan eta handik egun batzuetara Mendarora joateko esan zidaten. Han ikusi zuten pneumonia txiki bat neukala, eta koronabirusaren proba ere egin zidaten. Pneumoniarentzako tratamenduarekin itzuli nintzen etxera, eta gero deitu zidaten esateko probak positibo eman zuela. Momentu horretatik etxe honetan ezin da inor sartu eta gu ere ezin gara irten.

### ◆ Positibo eman zenuela jakitean lasaitua hartu zenuen ala, urduritu egin zinen?

Lasaitu egin nintzen, egia esanda. Hasierako egunetan etxean nengoen jakin gabe ziur zer zen, sukarrarekin eta paracetamol hartzen. Eta horrek sukarra jaisten du, baina ez du gaitza sendatzen. Mendaron esan zidatenean pneumonia nuela eta tratamendua jarri zidatenean, lasaitu egin nintzen. Gero konfirmatu zidaten Covid19a nuela, eta beste pilula batzuk hartzeko esan zidaten. Ez dago tratamendu zehatzik eta pilula desberdinekin probatzen ari dira. Seguru jende asko dagoela etxean sintomekin, frogarik egin gabe eta tratamendurik gabe, buruari bueltak ematen eta egoera hori ez da erraza.

### ◆ Ba al dakizu non kutsatu zaren?

Ez dakit non kutsatu naizen eta ez diot horri bueltarik eman nahi, gainera. Galdetu zidaten ia egon nintzen kutsatuta zegoen norbaitekin, baina nik dakidala ez naiz inorekin egon. Pandemia oso zabaldua dago, eta harrapatu egin dut. Orain aurrera egin behar dut, ez dago besterik.

### ◆ Nola moldatu zarete isolatuta egoteko?

Egia esanda ez nintzen probaren zain egon, eta sintomak igartzen hasi nintzenetik isolatuta egon naiz. Ni nire gelan

*“Ez dakit non kutsatu naizen, eta ez diot horri bueltarik eman nahi, gainera”*

nago, eta emaztea eta umeak ezin dira etxetik irten, baina gelatik bai. Terraza ere badaukagu, eta txandaka irteten gara, beraz, nahiko ondo daramagu. Koinatuak ekartzen digu janaria eta atean lagatzen digu, eta EPLEkin ibiltzen den beste lagun bat etortzen zaigu zaborra ateratzera.

### ◆ Nola entretenitzen zara?

Telebista ikusten dut, ordenagailua ere badaukat eta laneko eta eskubaloiko hainbat kontu egiten ditut, eta irakurtzen ere egoten naiz. Sukarra eduki nuen egunetan ez nuen ezer egiten, ohean botata egon bakarrik. Orain badaukat gauzak egiteko indarra, eta aktibo nago.

### ◆ Kutsatuta egonda, nola eragiten dizute koronabirusari buruzko albisteek?

Ni ondo nagoenez, lasai hartzen ditut albisteak. Ikusiko banu gaixotasunak okerrera egiten zuela, gehiago kezkatuko nintzateke. Azken batean heriotza gehienak arnasa hartzeko zailtasunak dituztenengan ematen dira, edo adinekoetan eta patologia gehiago dituztenengan. Positiboan hartu behar da egoera, buruak asko eragiten du eta txarrera pentsatzen jarrita, seguru okerrera egingo nukeela.

### ◆ Zein jarraibide eman dizkizute?

Hau dena berria da medikuentzat eta beraiek ere ez daukate oso argi zer egin behar dugun. Esan didate egunetik egunera joango garela ikusten, baina entzun dudanez beste pare bat aste gutxienez isolatuta jarraitu beharko dut. Lasai nago, eta iritsiko da hemendik irteteko eguna. Pentsatzen dut tratamendua bukatu ostean beste frogaren bat egin beharko didatela jakiteko birusa oraindik nire gorputzean dagoen edo ez, baina oraindik ez didate ezer esan. Egia da medikuak gainean izan ditudala, ia egunero deitu didate, eta pentsatzen dut okerrera egin izan banu etxera ere etorriko zirela ni ikustera. Elgoibarren badakit beste etxe batzuetan ibili direla, baina nik zorionez sintomak kontrolatuta izan ditut uneoro. Sintomak desagertzean suposatzen da gaudituta izango dudala gaixotasuna, baina agian ez, eta hori jakiteko modu bakarra frogia egitea da. Nik ezin dut erabat ziurtatu, baina esango nuke nire semeak eta emaztea ere kutsatuta egongo direla, hasierako egunetan elkarrekin egon ginelako, baina beraiek ez daukate sintomarik. Dena dela, ni beste denbora egon behar dira beraiek ere etxean berrogeialdian. Eta oso garrantzitsua da etxean egotea. Gizarte honetan berekoi samarrak gara, eta une honetan uste dut berekoitasun hori alboratu eta solidarioagoak izan behar dugula, elkarri laguntzeko. Denok jarri behar dugu gure partetik, denon osasuna dagoelako jokoan, eta denok apur bat jarrita lehenago eta hobeto irtengo gara honetatik.





## MARI JOSE MARTIN

### ♦ **Familian kutsatu zarete zuek. Zer moduz zaudete?**

Gure etxean hobeto gaude, eta nire ahizpa ere bai, baina koinatua eta ama ospitalean daude ingresatuta [martxoaren 28an eginiko elkarrizketa da]. Nire ahizpak ia 2 urteko ume bat dauka eta hura ere sukarrarekin dago, nire alaba bat ere egon da, eta senarra ere bai. Okerren ama eta koinatua

daude, pneumonia harrapatu dutelako. Koinatuak egun bat pasatu du ZIUn eta orain plantan dago. Egoera gogorra da, bakoitza bere gelan dago, ezin ditugu bisitatu, eta informazio guztia telefonoz ematen digute. Esan digutenez tratamenduren batekin probatzen ari dira, baina momentuz ez dute hobera egin. Bi egun daramatzate ingresatuta, eta nahiko kezkatuta gaude beraiengatik. Eta egia esanda, telebistan entzuten dugun guztiak ez du batere laguntzen. Hildako kopurua goraka doa etengabe, eta hasieran ematen zuen adinekoak bakarrik zirela, baina ikusi dugu gazteak ere hiltzen direla. Nire amak eta koinatuak ez daukate bestelako patologiarik, ez dute erretzen, eta berez, osasuntsu daude, baina gaizki daude.

### ♦ **Non eta nola kutsatu zarete familia bereko hainbeste lagun?**

Zapatuetan gurasoen etxera joaten gara denok bazkaltzera. Martxoaren 14an joan ginen azkenekoz, konfinamendua ezarri bezperan, eta orduan kutsatuko ginen denok. Baina non harrapatu dugun ez dakigu. Guk ez dugu bidaiarik egin, denok Elgoibarren ibili gara, beraz, herrian harrapatu dugu, eta gero bata besteari pasatuko genion. Nire neba eta koinata ez ziren bazkarira etorri, eta haien ondo daude, eta nire senarra ere ez zen etorri eta berak sintoma arinak izan ditu. Zorionez, nire aita ere ondo dago, nahiz eta bera ere bazkarian egon zen. Eta eskerrak! Izan ere aitak baditu beste patologia batzuk, eta berak harrapatzea oso arriskutsua izan daiteke. Bestela, bazkaltzen egon ginen beste guztiok harrapatu dugu. Nire alaba hurrengo egunean hasi zen sukarrarekin, eta gero ni eta nire senarra. Eta ahizpa, ama eta koinatua ere aldi berean hasi ziren sintomak igartzen. Gurean, alabak eta senarrak nahiko arin pasatu dute, baina nire ahizpa, ama, koinatua eta ni oso gaizki egon gara, bereziki, koinatua. Hamabost egun egon gara larri, eta lehenengo astea, bereziki, oso-oso gogorra izan da. Nik sukar altua eduki dut, eta gorputz guztiko min izugarria. Hau ez da gripe bat, askoz gogorragoa da. Lehenengo egunetan etxean egoteko esan ziguten, baina gero okerrera egin genuenez, ospitalera bidali gintuzten. Nire ama hiru bat aldiz joan da ospitalera. Behin ambulanzian eraman zuten, eta gainerakoetan nire senarrak eraman gaitu denok. Medikuen agi-

*“Eskatu nahi diot jendeari mesedez etxean egoteko, denon hoberako da-eta”*


ria geneukan, eta badaezpada udaltzainei ere esan genien ospitalera gindoazela. Han proba egin ziguten, niri, ahizpári, amari eta koinatuari eta denok positibo eman dugu. Antibiotikoak, paracetamol eta Nolotil hartzen egon gara, eta ahizpak eta nik hobera egin dugu, baina amak eta koinatuak ez, eta ingresatu egin behar izan dituzte. Gainerako familiakoei ez diete probarik egin, baina esan ziguten positibo izango zirela haien ere. Kontua da proba okerrera egiten dutenei bakarrik egiten dietela, denentzako ez dagoelako. Orduan, denok egon behar izan dugu isolatuta.

### ♦ **Familia guztia isolatuta egon zarete, beraz. Nola moldatu zarete?**

Berrogeialdia bakoitzak bere etxean egin dugu. Etxeak nahiko handiak dira, beraz, gaixo bakoitza gela batean egon gara. Gogorrena umeekin ezin egotea izan da. Nagusiak gehiago ulertzen zuen egoera, baina txikiak gehiago eskatu digu atentzioa. Beraiek ere etxean daude, aspertuta, eta egoera hau gogorra da eurentzat ere. Jolastu nahi dute, eskolako lanak egin behar dituzte, eta guk ezin genien lagundu. Hasierako egunak hain izan ziren txarrak, alaba nagusiak sukaldatzen zuela! 12 urterekin bera arduratzen zen, gu ez ginelako gai. Oso gogorra egin zait. Eta nire ahizparen etxean berdin ibili dira. Baina gauza onak ere erakutsi dizkit isolamenduak, eta konturatu naiz inguruan lagun onak ditugula. Animoak emateko mezu eta dei pila bat jaso ditugu, eta denok eskaini digute laguntza. Benetan eskertuta nago. Eta eskerrak eman nahi dizkiet baita ere ambulatorioko langileei, bikain portatu direlako gurekin. Erizain eta mediku guztiak gure gainean egon dira eta oso ondo artatu gaituzte, baina bereziki, Belen Calvo gure medikuari eman behar dizkiot eskerrak. Senide guztior medikua da bera, eta ondo baino hobeto portatu da gurekin. Mendaron ere oso ondo daukate dena antolatuta, eta primeran zaindu gaituzte.

### ♦ **Hobeto egon arren, oraindik isolatuta jarraitu behar duzue, ezta?**

Bai, ni beste hamabost egunez egon behar naiz, baina nire senarra dagoeneko irten daiteke kalera. Ni ere desiatzen nago kalera irten eta plazan garagardo bat hartzeko. Horrelako egoeran konturatzen zara eguneroko bizimodua zein garrantzitsua den, bai guretzat eta baita umeentzat ere. Pasatuko da dena, baina orain etxean egotea tokatzen zaigu. Eta benetan diot, hobe dela etxean egotea gaixotasun hau pasatzea baino. Aspertuta egongo da jendea, bai, baina hobe da aspertuta egotea minez egotea baino. Eskatu nahi diot jendeari mesedez etxean egoteko, denon hoberako da-eta.



## ▶ EDURNE IZAGIRRE

PSIKOLOGOA ETA GIZARTE  
ZERBITZUETAKO LANGILEA

Koronabirusak gain hartu digu eta egoera honetan errazik ez dago inorentzat. Psikologoek, psikiatreek eta ospitaleetako sendagileek eurek ere ohartarazi dute kalte psikologiko handiak ekar ditzakeela guzti honek, eta beharbada, ez zaiola alderdi horri behar beste erreparatu. Guzti horri buruz hitz egiteko Edurne Izagirre psikologo mendarra eta BARRENEKO Iritzia saileko kolaboratzailea elkarrizketatu dugu. Espainiako Gobernuak funtsezkoak ez diren jarduerak ekonomikoak eten aurretik egindako elkarrizketa duzue hau.

- AINARA ARGOITIA -



# “Ez da aintzat hartu egoera emozionalak immunitate sisteman eragin zuzena daukala”

### ♦ Zein arrisku ekar ditzake birusari aurre egiteko neurri eraginkorrena bide denak?

Beste behin agerian gelditu da zein ikuspegi dagoen agintean eta zein posturatatik ulertzen diren egoerak eta hartzen diren erabakiak. Gorputza eta psikea bantzen dira, inolako erlaziorik izango ez balute bezala eta jada jakinak diren hainbat gauza alde batera utziz, geure egoera emozionalak gure immunitate sisteman duen eragin zuzena esate baterako. Eta bestetik, zaintza lanen ikusezintasuna dago. Honen erakusgarri da, adibidez, estankokoak irekita mantentzea beharrezkoa ikustea, eta aldiz, laguntza psikologiko eta hezitzailea pribilegiotzat hartzea. Profesionalok ezin ditugu pazienteak aurrez aurre artatu, baina garraiolariak atzera/aurrera dabilta ohiko martxan eta zenbait lantegitan lanean jarraitzen dute inolako segurtasun neurririk gabe. Ikaste-

txeak eta zenbait eguneko zentro itxia izan zen hartu zuten lehen erabakia. Mendekoak etxera bidali zituzten haien zaintza magikoki -betiko moduan, isilean eta errekonozimendurik gabe- berrantolatuko zelakoan, ez baitzen neurri horrekin batera kontziliaziorako neurririk martxan jarri.

Salbuespen egoera hau erabat berria da batzuentzat, baina beste batzuei oroitzen txarrak ekarriko dizkie militarren eta polizien presentzia handitu izanak. Beldurraren politika jarri dute martxan, eta honek gure gaitasun pertsonalak jarriko ditu auzian eta gutako bakoitzaren beldur sakon eta zaharrenak piztu ditzake. Eta horri isolamendua gehitzen badiogu, oso posible da sintomatologia anitza agertzea: insomnioa, antsietatea, pentsamendu errepikakorrek etab. Hau epe luzez mantentzeak sufrimendua handituko du, bai eta gaixotzeko probabilitatea ere, beldurrak kikildu egiten gaituelako, baita

gure immunitate sistema ere. Tentsio psikiko eta emozional honek agerian utziko ditu bakoitzaren gaitasun eta gabeziak.

### ♦ Gaitzari buruzko ohartarazpenek gaur besteko larritasunik ez zutela zirudienean, eta orain ere, adinaren aldagia nabarmentzen da bazter guztietan. Nola eragiten die horrek adinekoei?

Edozein egoera kudeatzerakoan garrantzitsua da analisi bat egitea, arrisku puntuak identifikatzea eta aurre egiteko zenbait estrategia diseinatzea. Honetarako gizarteak sailkatu eta neurri ezberdinak martxan jartzeak kontrol sentipena eman dezake, eta instituzioei hori egitea dagokie. Bi adin tarte nabarmentzen dituzten bereziki; haurrak, kutsakortasun handiagatik, eta adinekoak, zahurgarriak direlako. Mendekotasun handiena dutenak dira, zaintza handiena behar dutenak. Batzuk ondoan daukagu,



baina, goxo, eta haiek zaintzeko eta entretentzeko mila aukera eskaintzen zaizkigu. Besteak, aldiz, erabateko isolamendu eta bakardadera kondenatu ditugu eta telebistaren desinformazio eta alarma kanpainaren biktima zuzenak dira. Baina hemen garrantzitsuena da gairontzekook nola ari garen kudeatzen egoera hau. Gai al gara pentsamendu kritikoa mantendu, iritzi propioa sortu eta honen arabera gure mendean daudenei emozionalki laguntzeko? Oso garrantzitsua da azalpenak emateko gai izatea, egoerari duen garrantzia emanda, baina lasaitasunez, eta oso garrantzitsua da, era berean, haurrei nahiz adinekoei hitz egiteko aukera ematea eta haiei entzutea; balioa ematea euren bizipen eta sentipenei, eta elkarrekin aurre egingo diogula azpimarratzea. Izugarritzko erronka dugu, baina hazteko aukera ere halakoxea da, handia. Ohituak gaude egoerak 'soluzionatzera', eta soluzioa gure esku ez dagoen egoera bati aurre egitea, ezjakintasunari itxaropenik galdu gabe eustea, heriotzaz hitz egin eta hausnartzea, eta batez ere, lehenetsunak berdefinitzea oso aberasgarria izan daiteke guztiontzat.

♦ **Osasun sistema gainezka egiten hasia da bazterretan. Hedabideetan ez dago beste berririk. Herritar askorengan halako ezinegon edo antsietate puntu bat igarri dugu. Zer eragin izan dezake honek? Nola bideratu genezake egoera?**

Orain esango dudana nire sentipena baino ez da. Lehen momentutik ari dira mezu hau ematen eta beti pandemiaren neurriari lotuta, baina Txinan, abenduan agertu zen birusa eta urtarrilerako zepa identifikatua zuten eta aspaldidanik teorizatua zegoen globalizazioak zaugarri egiten zuela gizateria pandemia baten aurrean. Urtariletik martxora...nola kudeatu dute hau agintariek? Nolatan gelditu gara segituan babeserako materialik gabe? Osasun publikoan egin dituzten murrizketak eta gero, lanik gabe utzi dituzten langileak kontratatatu al dituzte egoera honi aurre egiteko?. Informazio

gaindosia? Beldur kanpaina da gehiegizkoa; informazioa, nire iritzi, gutxi eta oso kaotikoa da. Gizakiak betidanik sufritu du ezjakintasunarekin eta ziurgabetasunarekin; horregaitik dugu beharra egoerak eta pertsonak kategorizatzeke (laguna-etsaia, ona-txarra, gaixoa-osasuntsua...). Egoera honek planifikazio eta kategorizazio guztiak airean jarri dizkigu, eta egoera honetan antsietatea sentitzea osasuntsua da, errealitatearekin bat dator, eta sortzen digun ezinegonarekin sortu daitezke erantzun kreatiboak; antsietate hau ez da ito edo medikatu behar, onartu eta artatu egin behar dugu, neurriak hartuz. Ondo legoke infoxikazioari neurriak jartzea, se-guru sentiarazten gaituzten espazio eta pertsonak zaintzea, bizi erritmoa berdefinitzea.

*“Erreferentziazko heldu bat ondoan duen haurra, ez da gogortuta geldituko kalera irten ezinagatik”*

♦ **Umeak ere etxean itxita dauzkagu egunotan, eta hasi dira batzuk galdezka zer eragin izan dezaketen honek propio haiengan. Zer duzu esateko honen inguruan?**

Umeek momentu honetan gehien behar dutena da gurasoak lasaitzea eta alboan izatea. Bere beharrekin konektatua dagoen haurra, erreferentziazko heldu bat ondoan duena, ez da gogortuta geldituko kalera irten ezinagatik. Aktibitatea behar dute, euren garapenerako elikadura delako, baina beren buruei galdera hori egin dieten gurasoek asetuta dituzte ume horien oinarritzko beharrak. Etxea egokitua izango dute haurren gozamenerako eta nahiko baliabide izango dituzte



haurrak aktibo mantentzeko. Haurrek egokitze gaitasun handia dute, eta gehien behar dutena da ikustea gurasoak gai direla egoerari aurre egiteko eta badakitela nola jokatu; gure bitartez bizi dute mundua eta errealitatea, guretzat bortitza eta kontrolaezina bada, horrek ondoez handia sortzen du haurrengan.

♦ **Bizi dugun egoera honetan ikusi ditugu herritarrak auzoak zaintzen; Poliziarena egiten. Zerk egiten du egoera hauetan joera hauek nabarmentzea?**

Beldurraren kanpainak badu bereizgarri bat, gerra egoeratzat planteatzen dela; oraingoan birusa dugu etsai eta herritar guztioi egin digute deia haren aurkako tropetara batzeko, geure bizia defendatzeko. Ikuspegi honetan bi bando daude beti, aldekoak eta etsaiak; etsaiari aurre egiteko martxan jarritako estrategiak betetzen ez dituen etsaiaren konplize bihurtzen da instantean. Herritarron arteko kontrola pizteko egiten da hau, eta lehen aipaturiko antsietate egoeran egon eta neurriak ez badugu hartzen geure zentzua berreskuratzeko, oso erraz eroriko gara auzotarren arteko liskarretan. Benetako jarrera komunitarioaren oinarria konfidantza da, baina ez da hau elikatzen. Bizi garen gizarte ereduaren ondorio da, indibidualismoa nagusi den gizartearena, sare komunitarioak oso debilduak dituen jendartearena.

♦ **Kontrara, balkoitik txalo egiteko ekimenak, herritar norbanakoek sortu dituzten bestelako ekintzak eta boluntario-sarerako izena eman duten lagunen kopurua izugarri handitu dira, eta halako taldeetan bat ere sortu da.**

Gure esku dago horri eustea, orain eta beti. Baina nik ez dut kontraesankorra ikusten aurreko galderan aipatutakoa eta balkoitik txalo egiteko ekimenena. Mendarón, Bizkaian gertatutako feminizazio bikoitza salatzeke herri mailako deialdi bat egin genuenean, ez zen lapiko hots handirik izan; aldiz, Sorluzen gizon batek ama hil zuenean deialdi globala egin zen eta erantzuna oso bestelakoa izan zen. Azkenaldian aldarrikapenak ere modu globalizatu eta



hutsean egiteko moda bat ezarri den susmoa daukat. Munduarekin konektatzen gaituztela sentiarazten gaituzten ekimenek dute arrakasta. Baina badakigu zein den gure auzokideen egoera? Herrian neurriak har daitezten indarra egiteko prest gaude? Anlisi sakonik eta luzerako neurriak ezin du ekarri aldarrri modu honek. Boluntario sareak erabat beharrezkoak dira, baina ez badugu kalitatezko zerbitzu publikoen alde behar den lekuan borroka egiten, beste guzti hori epe motzerako erremedioa izango da. Euskal Herrian pobrezia datuak handitzen ari dira. Oso gertu dauzkagu etxealdian gosea pasatuko duten familiak eta horri ekimen komunitarioekin bakarrik ahal zaie erantzun.

♦ **Etxean gelditzeko agindu digute herriarroi, baina enpresak zabalik egon dira. Presioa norbanakoengan jartzeak zer eragin izan dezake?**

Egoera kolektiboei indibidualismotik erantzuteak erakundeak arduraz libre gelditzea dakar. Gobernuak alarma egoera izendatzean indibiduo bakoitzaren mugimendua mugatu dezake, baina enpresen aktibitatea ez? Militarrek eta poliziak norbanakoak kontrolatzen eta isunak jartzen dabilta, baina ez lantegietan segurtasun neurriak ezartzen direla ziurtatzen. Orduan, lehentasuna zerk dauka, guztion osasunak ala botere ekonomikoak? Gaiak izugarria, sufrimendu sakona, eta bakardadea dakar horrek norbanakoentzat. Honen aurrean zer egin genezake? Sare komunitarioak sortu, herrian, auzoan; gure esku dauden gauzetan zentratu, ihes egiten digutenetan barik. Neurri honek etxean gutxieneko segurtasun eta erosotasunik ez dutenei egiten die kalte handiena: etxebizitza partekatzen dutenei, indarkeria matxista jasaten duten ume zein andreei, mendekoak zaintzen etxeko langile moduan daudenei...

♦ **Gu etxean gelditzen gara". Gorka Bereziartua 'Argia'-ko kazetariak honela zioen aurreko batean traol horri buruz: "Ongi dago etxean geratzen garelako sentitzen dugun gailentasun moral, baina igual asuntoa da bada-goela jendea ateratzera behartuta da-**

**goena, kapitalak edo patronalak hala agindu diolako edo bestela". Zer diozu?**

Erabat ados nago afirmazio horrekin, mezu horrekin, gailentze horretan, lehen aipaturiko bandoetako batean kokatzen gara, modu argian; ni birusa etsai duen tropan nago, guztion bizitzak salbatzen ditut etxean gelditzen, eta lanera zoazen horrek guztiok arriskuan jartzen gaituzu. Erabat erosi dugu erakundearen diskurtsoa, pentsamendu kritikorik gabe, analisi sakonagorik gabe. Honela, "gu eta gutarrak" bereizten gara, gainerako guztien gainetik. Eta bat-batean, sustentu ekonomikoa eduki ahal izateko lanera doan bihotz arazoak dituen 50 urteko gizona (arrisku handia duena birusaz kutsatuz gero eta etxean geldituta bizia salbatuko lukeena), etsaitzat hartzen dut. Eta neu, erosotasunez beteriko etxe ederrean eta hozkailua beteta, baina kirola egitera irten ezin naizen hau bihurtzen naiz biktima. Bizitza, errealitatea, ez da beltza edo txuria, ez daude zintzoak eta gaiztoak gure seme-alaben ipuinetan bezala, tartean daude kolore guztiak, baina begiratu egin behar da ikusteko.

*"Erabat erosi dugu erakundearen diskurtsoa, pentsamendu kritikorik gabe, analisi sakonik egin gabe"*

♦ **Bakarrik hiltzen ari dira gaixoak eta dolurik ere ezin da egin, hiletak eta bestelako gurtzeak ere bertan behera gelditu direlako. Dolua egin ezinak zer dakar?**

Dolua oso prozesu konplexua da, eta bakoitzak aurre egiten dio prest da-

goenean eta gai ikusten denean edo bizitzak behartzen duenean. Kasu hauetan bi alde daude; bakardadean hiltzen denaren eskubide urraketa eta bere gertukoaren sufrimendua handitzea protokoloak bete beharrek. Lehenengoa benetan da larria eta berriz planteatu beharrek; osasun ezin hobean dagoen familiako batek zergaitik ezin dio lagundu azken txanpa horretan, prest baldin badago? Bere burua jarriko luke arriskuan, ez besterik, eta duintasunez joateko aukera emango lioke hiltzen denari. Berrito ere agerian gelditzen da zaintza lanaren baliogabetzea eta ikusezintasuna; hau ez baita ikusten lehentasunezko behar gisa. Ingurukoei dagokionez, doluak agur kolektiboa baino izaera askoz sakonagoa dauka, modu indibiduallean egin beharrek da. Agurra modu kolektiboan egiteko modu berriak sortu daitezke, baliabideak baditugu; modu kolektiboan egitearen zentzua lagundua sentitzearena da. Eta maila indibiduallean bakoitzari dagokio prozesuaren kargu egitea, edo ez.

♦ **Epidemia erronka handia da gure jendartearentzat. Ahul sentiarazi gaitu birusak. Zer irakaspen ateratu behar dugun hemendik?**

Lehen munduan jaio garenok eta gerririk ezagutu ez dugunok badugu suntsiezinak garen ustea. Epidemia honek ikusarazi digu zeinen zaugarriak garen eta heriotzaren aukera jarri digu aurrean. Zahartzeko beldurrez bizi den gizarte batean heriotzari aurre egin beharrean topatu gara, eta baliabiderik gabe harrapatu gaituelakoan nago. Ikasgai oso baliogarria eskaintzen digu egoera honek: hil gaituzela onartzeak bizitzari eusteko grina pizten du. Gaitasun eta aukera mugaezinak ditugu, baina muga bat onartu beharra dugu, gorputz bakarria dugu eta honen beharrei erantzuten ikasi behar dugu, kalitatezko bizitza izan nahi badugu. Geure mugak onartzeak besteekiko ere tolerantetago egiten gaitu, beraz aprobeztatu dezagun aukera pertsona gisa eta komunitate gisa hobetzeko.



# Oinarrizkoak ez direnak, itxita

Eskolak etetea eta ikasleak etxera bidaltzea izan zen koronabirusari kontra egiteko hartu zen lehen neurria, aisialdiko kirol eta kultur jarduerak bertan behera laga zituzten ondoren, eta denda eta ostalaritzako establezimenduak ere itxi zituzten, oinarrizko beharrak asetzen dituztenak soilik zabalik utzita. Konfinamendua azarri zuten gero martxoaren 14an, baina lanera joatea ez zuten debekatu, gizarteko hainbat erakundek esan arren hori zela pandemiari aurre egiteko hartu beharreko neurria. Joan zen zapatuan hartu zuen erabaki hori Espainiako Gobernuak, eta martxoaren 30etik apirilaren 9ra bitartean oinarrizkoak ez diren lan guztiak eteteko agindua eman du. Hala ere, enpresa batzuei gutxienezko jardura bati eusteko baimena eman die Madrilgo gobernuak, eta aukera hori aztertzen ari dira zenbait enpresa. Lanean diharduten langileek beraien jarduna egiaztatzen duen agiria eraman beharko dute, polizia kontroletan erakusteko.

- AINHOA ANDONEGI-



1. Zenbat langile dituzue?

2. Orain arte, zein neurri hartu dituzue?

3. Zein egoeratan dago une honetan zuen enpresa? Nola eragin dio Espainiako Gobernuak hartu duen azken erabakiak?

4. Nolako urtea aurreikusten duzue?

5. Zer datorkigu? Zenbat denbora beharko dugu errekuperatzeko?



PELLO RODRIGUEZ, DanobatGroup

1. Danobat, Goiti, Ideko eta DanobatGroup-eko zerbitzu zentralekin batera 610 pertsona inguru gara Elgoibarren. Horietatik Danobaten daude 400 inguru.

2. Otsaila bukaeran komite krisi txiki bat eratu genuen etor zitekeena ikusita, eta martxo hasieran indartu egin behar izan genuen. Pixkanaka joan gara zer zetorren ikusten, gehienak bezala. Martxoaren 9ko astean zehar, erabaki desberdinak hartzen joan ginen egoerari aurre egiteko. Horien artean, lanaren jarduna mantendu behar genuela erabaki genuen, galera ekonomikoak ahalik eta gehien sahiesteko, baina horren aurretik gure kolektiboaren segurtasuna bermatu behar genuela erabaki genuen. Hortaz, martxoaren 16an, 17an eta 18an aktibitatea ikaragarri murriztu genuen, protokoloak landu eta martxoaren 23ko astean, beharrezko berme guztiak edukita, beharrezkoak diren proiektuetan lanean jarduteko.

3. Eragin zuzena dauka erabaki horrek gurean, jardun oso kon-

kretu batzu salbu, besteetan ezingo dugulako fisikoki lanera joan. Hortaz, etetik lan egiteko planarekin jarraituko dugu, oporrak aldatu beharko ditugu... neurri desberdinak hartu beharko ditugu.

4. Momentu honetan ezin da aurreikuspenik egin, baina argi dago hiruhilabeteko bat galdutzat emango dela, aktibitate ekonomikoari dagokionez. Oso gogorra izango da guretzat, baina are gogorragoa beste sektore batzuentzat, esaterako, merkataritzarentzat eta herriko dendariarentzat. Argi dago urte gogorra datorrela eta horretarako neurri bereziak hartzen ari gara.

5. Inork ez daki zer gertatuko den, baina aurre egiteko neurriak hartzen ari gara. Txinan ekonomia asko aktibatu da eta esperantza daukagu Europan ere horrela izatekoa, baina esan bezala, neurriak hartzen ari gara, eta gero berraktibazioa badator, ongi etorria izango da! Guk aktibitatea mantentzeak gure inguruan dauden enpresa askoren aktibitatea mantentzea ekartzen du. Enpresa oso txikiak dira, eta gu gelditzeak ekarriko lizkiekeen galarak sahiesteko ere aktibitatea mantendu nahi izan dugu.



## GORKA MIR, Laserlan

**1.** Enpresa txikia gara gu. Sei langile gara. Ni autonomia naiz, eta gainerako bostak kontratatuta daude.

**2.** ERTE bat aurkeztu genuen joan zen astean, baina une honetan Administrazioa oso lanpetuta dago, eta momentuz ez daukagu erantzunik. Orain, gainera, dekretua aldatu egin du Espainiako Gobernuak, beraz, ez dakit guk aurkeztutako ERTE hori nola geratuko den. Ez dakit gerora emango diguten eta aurreko bi asteetarako balioko digun. Gu orain arte lanean egon gara, eta bi aste hauetako soldatak ordaindu egin behar ditugu.

**3.** Zapatuko agindua etorri zenetik, geldirik gaude erabat. Nire ustez lehenago etorri behar zen erabaki hau, osasun aldetik begiraruta. Ekonomia dagoeneko kaltetuta dago, eta egoera honetan osasuna zaintzea ezinbestekoa da, ospitaleek gainezka ez egiteko. Asteburuan etxean egon eta gero lanera joatea alferrik da. Erdibideko neurri bat izan da hori, azkenean erabatekoa hartzeko. Hobe zen hasieratik neurri gogorra hartu eta dena geratzea, horrela lehenago bukatuko zelako. Gu aurreko asteetan lanean ibili gara, baina nahiko gaizki. Zerbitzu enpresa bat gara, beste enpresetara joaten gara lanera, eta orain ez gara joan. Hau guztia hasi zenetik sekulako beherakada igarrita geunden, eta orain gehiago. Guretzako kolpe gogorra izan da. Ez dugu fakturatzeko, eta gastuak berdin-berdin ordaindu behar ditugu. Autonomoen

kuota ere ordaintzen ari naiz, eta laguntzak eskatu ditugu, baina auskalo noiz etorriko diren. Une honetan dena dirua jartzea da, eta ez badigute laguntzarik edo mailegurik ematen, guk itxi egin beharko dugu; horrela ezingo dugu jarraitu. Laguntza horiek, gainera, gero itzuli egin behar dira, ez pentsa ezer oparitzen digutenik. Orain ematen diguten laguntza lau urtetan itzuli behar da.

**4.** Urte oso-oso gogorra dator. Uste dut jende asko oraindik ez dela jabetu zer datorkigun. Batzuk pentsatzen dute konfinamendua amaitzean orduak berreskuratuko eta dena lehengoa izango dela, baina niretzako, gerra-osteko bat dator hemen. Agian oso ezkor egongo naiz, baina esango nuke hamarretik hiru enpresa itxi egingo direla, gehienak enpresa txikiak, langabeziak izugarri egingo du gora, eta horrek kontsumoan eragingo du eta herriko denda eta ostalariek ere igarriko dute.

**5.** Denbora asko beharko dugu errekonstruzio, eta ez dakit lehenago iritsiko garen ere. Osasun krisia konpondu behar da lehenengo, eta bakuna atera arte ez da konponduko. Urtebete inguru pasatuko dela diote bakuna atera arte, baina izango da gehiago. Nire ustez, osasun alarma egoera hau gainditzea asko kostatuko da. Nahikoa da pertsona bat egotea kutsatuta, berriz hasteko hau dena, eta horrek lanari zuzenean eragiten dio. Osasun krisia gainditzeko dugunerako ekonomia hain egongo da hondoratuta, handik irteera oso-oso zaila izango dela.



## IOSU UNZUETA, Geminis

**1.** 65 langile gaude Geminisen.

**2.** Konfinamendua etorri zenetik hasi ginen enpresa barruan babes neurriak hartzen, eta joan zen asteko asteartean akordio bat lortu genuen langileekin, Pedro Sanchez Espainiako presidentek hartu dituen neurriekin bat egiten duena. Osasuna zaintzeko zailtasunak izango genituela ikusi genuen, eta horren aurrean erabaki genuen Aste Santuko oporrak aurreratzea. Hau da, oporrak Aste Santuan eta Pazko Astearen hartu beharrean, aste honetara aurreratzea adostu genuen enpresa-komitearekin. Hortaz, etxetik lan egiteko aukerarik ez zuten langileak oporretan daude aste honetatik apirilaren 14ra arte.

**3.** Erabaki berri honekin apirilaren 9ra arte eten behar denez aktibitate, langileei astebete geratuko zaie berreskuratuzeko. Oraindik ez dugu adostu nola berreskuratuko beharko dituzten orduak, hori gerora erabakiko dugu. Bi aste hauetako egun gutxi batzutan 3-4 langilek lanean jardungo dute, atzerriko sektore oinarritzkoetan

lanean jarduten duten bezero batzuei makina batzuk amaitzeko eta beraiekin dauzkagun kontratuak betetzeko.

**4.** Egoera ekonomikoa zaildu egingo da, fakturazioa atzeratuko delako, eta fakturatzeko ez badugu, ordainketak garaiz egiteko zailtasunak izango ditugu. Baina, zorionez, gu nahiko momentu onean harrapatu gaitu honek guztiak. Ondo ari ginen lanean, eskari asko genituen eta lasaitasun apur bat badaukagu. Azken bost sei asteetan, esaterako, hainbat makina entregatuta geneuzkan herrialde desberdinetako enpresetan, baina beraiek ere koronabirusaren kontrako neurriak hartu behar izan dituztenez, ezin izan ditugu martxan jarri. Beste makina batzuk orain iritetakoak ziren, eta beste batzuk hasierako fasean genituen. Dena atzeratuko zaigu, eta horrek eragina izango du gure ekonomian, jakina. Eskari batzuk ere bertan behera geratu zaizkigu, eta horietako asko ezingo ditugu gero ere berreskuratuko, baina, bestalde, etxetik lanean ari gara oraindik martxan dauden herrialdeetan eskariak lortzeko. Badirudi krisi sakon bat etorriko dela, baina oraindik goiz da esateko.



Guk, gainera, herrialde eta sektore desberdinetan egiten dugu lan, eta suposatzen dut denei ez diela modu berean eragingo, baina eragina seguru negatiboa izango dela.

**5.** Sektore guztiei eragin die egoera honek eta denbora beharko dugu errekuperatzeko. Lehenengo ikusi behar da noiz bueltatuko



**KARLOS OREGI GIZASOLA, Goki Erreformak S.L.**

**1.** 20 langileko enpresa bat gara, eta horrez gain, 12 langilek osaturiko beste kooperatiba txiki batekin egiten dugu lan. Ni autonomia naiz, eta kontratatuta ditugun langileei soldata ordaindu behar diegu. Beste enpresa batzuk lan guztiak autonomoekin egiten dituzte, beraz, lanik ez dagoenean ez dute ordaindu behar; ez da gure kasua. Guk hileroko gastu finko asko ditugu, eta une honetan ez daukagu fakturaziorik. Lan eta obra pila bat bertan behera laga behar izan ditugu, Arrasaten, Bergaran, Eibarren, Azkoitian, Elgoibarren... Hau ez da enpresa handi bat, ez da Iberdrola bat esaterako. Tipi-tapa, ordu pila bat sartuz, sortutako enpresa txiki bat da.

**2.** Gu orain arte lanean egon gara, babes neurriak hartuta. Aire librean egiten dugu lan askotan, aldamiu gainean, eta langileen artean bi metro edo gehiagoko distantzia zaindu dugu. Orain arte gainera, kalean jende gutxiago zebilenez, ez geneukan inorekin harremanik, eta ordutegi jarraia egiten genuen gehienok, kalean ahalik eta denbora gutxien egoteko. Nik uste dut gu lanean jarraitzeko moduan geundela, langileen osasuna arriskuan jarri gabe.

**3.** Espainiako Gobernuak hartu duen azken erabakiaren ondo-

garen lanera, eta nola, zein baldintzatan. Osasun alorrean asma-tzen badute birusa geratzen, errazago irtengo gara, baina argi eduki, apirilaren 9an ez garela normaltasunez itzuliko lanera. Orain arte ere komertzioa eta ostaritza itxita zeuden, eta horrek ere eragin handia dauka gizartearen, eta industria guztia etenda, gehiago.

rioz, astelehenetik geldirik gaude. Txarrena ez da apirilaren 9ra artekoa izango, txarrena da inork ez dakigula egoera hau noiz arte luzatuko den, eta egoerarik onenean dauden enpresak ere, asko jota, hiruzpalau hilabete iraun dezakete fakturatu gabe. Egoera hau asko luzatzen bada, zaila izango da burua jasotzea. Lehen ere krisialdi gogor batetik gendozen, oraintxe zegoen hasita "errekuperatzen", enpresa gehienak ukituta irten gara krisialdi hartatik, eta orain hau etorri zaigu. Gero langileek orduak berreskuratatu beharko dituzte, baina egoera honek luze jotzen badu, ez da erraza izango ordu horiek guztiak berreskuratzea. Normalean ondo moldatzen gara, eta gure artean adosten dugu egutegia, beraz saiatuko gara akordioetara heltzen.

**4.** Urte zaila izango da sektore guztientzat. Enpresa askok nominak ordaintzeko zailtasunak izango dituzte, beste langile batzuk kalean geldituko dira eta horrek kontsumoaren jaitsiera ekarriko du. Nomina baten menpe bizi diren familiek gutxi iraun ahalko dute nominarik gabe, eta hortik aurrera egoera zailtzen hasiko da.

**5.** Ez dakit zenbat denbora beharko dugun errekuperatzeko. Lehenengo osasun krisia gaingitu beharko dugu, eta ondoren ekonomikoa.





**Ixaka Egurbide, IMHko zuzendari kudeatzailea eta UPV/EHUra atxikitutako Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolako Zuzendaria.**

## **Graduaren Irakaskuntza Duala egoera berrian**

"Osasun-alertaren aurrean, lanean jarraitu dugu gure prestakuntza dualaren ereduaren printzipioei leial eutsiz, egokitzapena eta malgutasuna oinarri hartuta, inplikaturako eragile guztiekiko sentsibilizazio eta enpatia bereziarekin. Irakaskuntzaren Eraldaketa Digitalean bagenbiltzanez, egungo egoera konplexuari aurre egin ahal izan diogu naturaltasunez, eredu horrek dakarren enplegarritasun-maila handiari eusteko apustua eginez. Gure esentzia mantentzen ari gara, ikasleen jarraipen estua egiten ari gara gure teknologia erabiliz, on-line tutoretzen

bidez; gure irakasleak, ikasleak eta enpresako tutoreak erabat konektatuta daude.

Metodologia dualak ikasketa akademikoa eta enpresan integratutako lana uztartzen ditu. Industriari orain duen ziurgabetasun egoeraz jabetuta, enpresa bakoitzaren egoerara egokitzen ari gara, kasuan-kasu irtenbiderik eraginkorrenak diseinatuz, gure ikasleen talentua, enpresaren inbertsioa eta irakasleen ahaleginari eusteko helburuarekin. Une honetan are beharrezkoagoa da oraingo egoerari eta etorkizuneko erronka berriei aurre egiteko



guztiok elkarrekin jokatzea.

UPV/EHUrak atxikitako IMHko Ingeniaritza Dualaren Unibertsitate Eskolatik mezu itxaropentsua eta lasaigarria helarazi nahi dugu, gure giza taldea, ezagutza, esperientzia eta eredu hone-

kiko konfiantza enpresen eta ikasleen eskura jarritz, gizartearekiko dugun konpromisoari eusteko, etorkizuneko profesional onenak eta enpresaren beharretara egokitutakoak garatuz eta lan-merkatuaren eskura jarritz”.



AMAGOIA LASAGABASTER, Debabarreneko ELAko arduraduna

**1. Espainiako Gobernuak beharrezko jarduerak ez direnak eteteko agindua eman du, martxoaren 30etik apirilaren 9ra arte. Sindikatuek eta beste hainbat erakundek**

**eskatzten zutena heldu da. Nola hartu duzue berria?**

Poztu gaitu, erabakia berandu hartu den arren. Hori da zientzialariek aspaldi eskatzten zuten neurria, eta osasuna diru irabazien gaintik jartzen dugunok ere hori eskatzten genuen. Hamabost egun lehenago hartu bazen erabaki hori seguru kutsatu kopuruak behera egingo zuela.

**2. Langileek ez dute soldata galduko, baina gero ordu horiek errekerperatu egin beharko dituzte.**

Bai, gaur [domekan eginiko elkarrizketa] oraindik ez dugu dekretuaren letra txikia aztertu, baina dirudienez, langileek beraien ordezkariak legalarekin edo gabe (kasu honetan komisio bat osatzea proposatzen da), zazpi egun izango dituzte ordu horiek nola errekerperatu behar dituzten negoziatzeko. Kontu honetan esan beharra dugu, ez zaigula bidezkoa iruditzen, berriz ere, kalte guztia langilearen bizkar jartzea. Ikusi beharko da zein baldintzatan ematen diren negoziaketa horiek.

**3. Autonomoak zein egoeratan geratzen dira dekretu berri honekin?**

Sindikatuok erregimen orokorreko langileekin egiten dugu lan batez ere, hortaz ez daukagu autonomoen egoera errealean gaineko analisirik. Herritar moduan esango nuke egoera traketsean daudela eta ziurgabetasun egoera batean bizi direla. Iruditzen zait, bestalde, ez dela berdina dentista edo tabernaria izan, nahiz eta biak autonomoak diren. Esan nahi dut dentistak gero ere izango dituela bezeroak hagineko minez, baina tabernariak orain arte galdutakoa galdu du. Laguntza batzuk ere eman zaizkie, baina gehienak ordaintetako atzeratzeko izan direla uste dut, benetako laguntzarik ez. Komertzio txikiak asko sufrituko du.

**4. Azken erabaki honen aurretik enpresa askok ERTEak aurkeztu zituzten. Azalduko diguzu zer den ERTE bat? Nola eragiten dio ERTEak enpresari? Eta, langileari?**

Eplegua aldi baterako erregulatzeko espedientea da ERTEa. Formula hau lehen ere aukeran zuten enpresek, baina oraingo berezitasuna da ERTE hori ezinbestek bultzatutako egoeragatik tramitatu daitekeela eta horrek langileekin negoziatzeko aukera murrizten duela. Enpresak berak bakarrik hartu dezakeen erabakia da, eta, gainera, oso azkar; bost egunen bueltan tramitatu da. Langileak bere kontratuan etena izango du alerta egoerak

iraun bitartean, eta desentregia kobratuko du. Langabezia prestazioa baina, murriztua izango du, bere kotizazio oinarriaren %70 bakarrik kobratuko du (topeak daude, bai maximoak eta bai minimoak). Horrez gain, nabarmentzekoa da, prestazioan kontsumitutako egunak ez direla kontuan hartuko; hau da, kontsumitu gabe moduan berrezarriko dira ERTEa amaitzean.

**5. Askok salatu dute krisialdi garaia aprobetxatzen dituztela enpresa askok jendea kaleratzeko, eta hori gerta ez dadin, neurriak hartu dituzte beste herrialde batzuetan. Hemen ba al dago legerik esaten duena langileak ezin direla kaleratu datozen bi-hiru hilabeteetan?**

Ez. Atera duten dekretu batek dio aldi baterako langileak ezin direla kaleratu; hau da, egoera hau dela-eta aldi baterako langileak ezin direla kalean utzi. Praktikan, baina, uste dugu aldi baterako langile ugari iri eten dietela kontratua krisi honengatik, eta aurrerantzean ere kolektiborik ahulenak izango dira behin-behineko langileak.

**6. Elgoibarren eta Debabarrenean, oro har, enpresa gehienek makina erremintan egiten dute lan, eta asko saltzen dute nazioartean. Koronabirusaren krisia mundu mailakoa dela kontuan izanda, nola eragingo du horrek hemengo enpresetan?**

Inguruko enpresa batzuk zailtasunak dituztela esan digute, bai beren hornidurak lortzeko eta baita salmentak antolatzeko ere, eta horren baitan, lan-karga falta argudiatuta, neurri ezberdinak proposatu dituzte. Orain dela bi aste eskatu genuen guk oinarrikoak ez diren eta lehen-mailako produktuen produkzio lan egiten ez duten enpresen lan jardura eteteko. Langileak etxera bidali eta modu honetan osasuna lehenetsi behar zela esan genuen. Praktikan, baina, ikusi dugu hau ez dela gertatu. Enpresek lanean jarraitu dute beraien produkzio beharren arabera, beti produkzioa lehenetsiz, langileen segurtasunaren gaintik. Hurrengo hilabeteetan krisiak izango duen eragina ez dakigu zein izango den. Izan daiteke enpresek denbora behar izatea beren ohiko jarduerara eta erritmorara itzultzeko. Dakiguna da, egokitzapen-behar horiek langileen kontura egin nahiko dituztela, eta antolatzen ez bagara, beste behin, langileek ordainduko dituztela krisi honen kostuak.

**7. Nolako urtea aurreikusten duzue 2020a?**

Zalantza ugari izango du. Ez dugu horrelakorik ezaugutu lehenago, eta gainera, mundu mailako krisia da. Gure helburua da krisi honen kalte guztia ez ordaintzea langileek. Krisi bakoitza erabiltzen da langilegoaren eskubideak murrizteko, bakan batzuk aberasten jarrai dezaten, eta gure lana izango da langileria antolatu eta egoera honi aurre egitea.

# ▶ AINHOA PERURENA

MENDARO OSPITALEKO ERIZAINA

**Ainhoa Perurena (Arroa-Behea, Zestoa, 1977) erizaina da Mendaro Ospitalean eta bizi ere Mendaron bizi da. Egunotan, baina, ospitalean du bigarren etxea, eta han du bigarren familia. Ospitaleko egunerokoaren berri eman digu, gaueko txanda bukatu berri.**

- AINARA ARGOITIA -

“Ezer ez da erraza. Profesionalok ere beldur handiarekin bizi dugu egoera hau”



## ◆ Nola bizi duzue egunerokoa, Ainhoa?

Urduritasun handiarekin ari gara lanean. Egoera hau berria da guretzat ere, protokoloak egunero-egunero moldatzen dituzte, kutsatutakoen kopuruak gora egiten jarraitzen du, eta momentuz Mendaroko ospitalean babes-ekipoak-eta badauzkagun arren, iristen zaigu beste leku batzuetan dituzten gabezien berri eta horrek guztiak kezkatuta gaitu. Nire lankide bat, erizain laguntzailea bera, asteburuetan erresidentziara joaten da lanera, eta han zabor-poltsak erabiltzen dituzte mantaltzat. Egoera benetan da tristea. Zuzendaritzakoak ere ari dira ahaleginak egiten ospitalea berrantolatzeke eta egoera honi ahal den ondoen erantzuteke, baina gaina hartuta gabiltza denok. Eta hau dena esanda, nahiko nuke azpimarra jarri egunotan gutxiegi berba egin den kolektibo batek egiten duen lanean. Iruditzen zait ospitaleetako, osasun etxeetako eta gainerako zentroetako garbitzaileek merezi dutela aitortza bat. Gu bezala ari dira lanean birusaz kutsatzeko arrisku handiko lekuan, gurea bezain ezinbestekoa da haiek egiten dute lana eta txalo zaparrada handi bat eskatuko nuke haientzat ere. Esker on mezuak egunero iristen zaizkigu guri, eta hunkitzen gara iluntzeroko txaloekin, gure sentimenduak ere bor-bor daudelako. Ekimen horiek indar handia ematen digute lanerako.

## ◆ Zer itxura du ospitaleak?

Dena aldatu da. Solairu oso bat, bigarren solairuko atal handi bat eta hirugarren solairuko zati bat daude koronabirusak kutsatukoentzat edota gaitzaren sintomak dituztenentzat. Hirugarren solairu horretan daude, baita ere, urgentziatzko ebakuntzak behar dituztenak eta barne-medikuntzako gainerako guztiak.

## ◆ Gaurko datuen arabera [martxoak 28], 25 lagun daude Mendaron koronabirusagatik ospitaleratuta.

Bai, bart gaueko datuak horiek dira. 25 positibo eta bat emaitzaren zain, baina hau argitaratzen duzueenerako gehiago izango

dira ia seguru. Oraindik ez du goirik jo honek, eta beraz, kasuak ugaritzen joango dira. Etor daitekeen horrek, beste ospitale batzuetan bizi duten egoerak, kezkatzen gaitu.

## ◆ Mendaro ospitalean ingresatutako lehenengo gaixoak senda-agiria jaso zuen barikuan. Nola bizi izan zenuten?

Berezia izan zen momentu hori. Beharra dutelako etortzen dira ospitalera gaixoak, baina momentuan, kasu larri-larririk ez dugu artatu beharrik izan eta espero dezagun luze eustea egoera honi. Mendaron, gaur gaurkoz, ez dago inor Zainketa Intentsiboen Unitatean. Tentsio eta urduritasun handia bizi dugu denok hala ere, eta gaixoak sendatzen ikusteak izugarriko poza ematen digu. Gaixoak isolatuta daude eta psikologikoki hondoa jota ere bai asko eta asko. Goitik-behera mozorrotuta sartzen gara gu haien geletara eta normala da beldurra izatea. Ezer ez da erraza hemen. Profesionalok ere beldur handiarekin bizi dugu, hemendik irten eta etxera goazelako eta kezkatzen gaituelako etxearen osasunak ere. Etxera iristiaz bat, atarian bertan kentzen ditut oinetakoak eta eransten ditut arropa guztiak. Arropak zuzenean garbigailura sartzen ditut eta ni, dutxara. Hori da gure egunerokoa. Gero, saiatzen naiz deskonektatzen, zaila dagoen arren, beste gairik ez dagolelako inon. Horrek ere antsietate handia sortzen digu denoi eta neurriak hartu behar ditugu.

## ◆ Mendaroko ospitalean ere erizainak falta direla irakurri dugu sare sozialetan. Hala al da?

Orain momentuan, eta biharkorik ezin dizut esan, pertsonal aldetik ondo gaude Mendaron. Aurrez aurreko kontsulta guztiak etenda daude, eta lan horretan aritzen ziren profesionalak eta errehabilitazioko unitatean eta kirofanoetan ari zirenak ere batu dira gure taldea indartzera. Kirofanoak ere justukuak gelditzen dira orain, bi baino ez, oso oker ez banago, bat birusaz kutsatukoentzat eta bestea gainerako guztientzat.






Koronabirusaren eraginez, gizartea hein handi batean geldirik dago, eta herritarrak etxean daude konfinatuta. Egoera horretan norberaren eguneroko bizitza erritmoari eusten saiatzen dira asko, baina beste kasu askotan hori ezinezkoa da. Koronabirusaren gaitzak eta konfinamenduak moldatu beharra ekarri die herritarrei, eta joan zen asteko erreportajeari jarraituz, oraingoan ere koronabirusaren albo-eraginak jaso ditugu bi orrietan.

AINHOA ANDONEGI

## Konfinamenduak milaka aurpegi ditu



**IGOR TORRES**, triatleta

// Gaur egun kirola egitea nire bizitzaren parte garrantzitsua da, eta konfinamendu egoera hau hasi zenean erabaki nuen ezin nintzela ezer egin gabe gelditu. Triatloietan aritzen naiz eta zailagoa da hiru kiroletarako etxean entrenatzeko aukera izatea, baina nola edo ahala ari naiz moldatzen. Bizikletako entrenamenduak egiteko arrabola banuen, eta baita giharren indarra lantzeko tresnak ere; etxean korrika egiteko aparatu edo zinta falta zitzaidan, baina. Erostea erabaki nuen, Internet bidez. Domekan eskatu eta asteazkenean etxean neukan. Zorte handia izan nuen, gerora ez baita erraza izan halakoak eskuratzea. Poliki-poliki ohitzen noan arren, gogorra izan da kalean egiten nuena etxean egitera ohitzea. Hurrengo asteetan Azkoitia-Azpeitia maratoni erdian parte hartzeko nintzen, eta orain etxetik egingo dut, zinta gainean. Aurten gutxiago lehiatzeko asmoa nuen eta gaitzerdi. Bigarren semea otsailan jaio zen, eta hori dela-eta, lasaiago ibiltzeko asmoa dut. Alabaina, 2021ean Ironman distantziako triatloietan lehiatzea nahi dut, eta entrenamenduei eustea ezinbestekoa da halako erronka handirako. Igeriketa praktikatzeko aukerarik ez dudan arren, Seber Uribe maisuak bidali dizkidan bideoak erabiltzen ditut etxean ariketak egiteko. Bsteko Egoitz Mora ere ari zait laguntzen, indarrarekin zerikusia duten ariketekin. Eta nire entrenatzaile Ander Romaratek entrenamendu guztiak moldatzen dizkit, egoera berri honetan gauzak ondo egiteko”.



## JAIONE TUDELA, erizain laguntzailea

// Jangelako zaintzailea naiz, eta ikasleak etxean egoteko agindua etorri zenetik, jangelak ere itxita daude, jakina. Egun hartan bertan lanik gabe geratu nintzen. Hasieran ez genekien enpresak nola kudeatuko zuen egoera hau, baina azkenean ERTE bat

aurkeztu zuen. Lankide batzuek jaso dute dagoeneko ERTE hori onartu dutela dioen mezua eta dokumentazioa aurkezten ari dira, baina nik oraindik ez dut ezer jaso. Eta egia da ezinegonaren sortzen duela egoera honek, batez ere, ez dakigulako noiz arte luzatuko den. Hori dela-eta, beste bide bat zabaltzeko unea zela pentsatu nuen. Joan zen abenduan bukatu nituen erizain laguntzaile izateko ikasketak, bai alor teorikoa eta baita praktikoa ere. Hiru bat urtez egon naiz ikasten, eta hiru hilabete egin nituen lan praktikak Mendaroko ospitalean. Behin ikasketak bukatuta atseden apur bat hartzeko asmoa neukan, niretzako denbora behar nuelako. Baina lanik gabe geratu nintzenez, eta egoera zein zen iku-

sira, konfinamendua etorri baino egun batzuk lehenago curriculumak bidaltzen hasi nintzen. Oraindik ez daukat titulua eskuan, baina otsailean ordaindu nituen titulua eskatzeko tasak, beraz, horrekin curriculumak osatzeko aukera izan nuen. Mendaroko ospitaleko arduradunaren kontaktua baneukan praktikak egin nituenetik, eta berari idatzi nion zuzenean, Giza Baliabideen Sailarekin harremanetan jartzeko. Hara bidali nuen dokumentazio guztia, eta hiruzpalau egunetara deitu zidaten. Eibarko ospitalean solairu berri bat egokitzen ari zirela esan zidaten, koronabirusa zuten gaitxoentzako, eta lanerako jendea behar zutela esan zidaten. Prest nengoela esan nien. Lanean hasi aurretik koronabirusaren protokoloa ezagutzeko eta EPLak jantzi eta erantzeko ikastaro bat egin genuen Mendaron. Ikastaroaren ostean, dei bat jaso nuen, Mendaron baja bat egon zela ebakuntza sailean, eta nahi banuen han hasi ahal nintzela lanean. Hau dena berria da niretzat, eta apur bat urduri jarri nintzen, baina baietz erantzun nien. Egun berean, berriz deitu zidaten, nahi banuen, Traumatologiako plantan ere lanerako lekua neukala esanez. Nik traumatologia ezagutzen nuen praktikatetik, eta ebakuntza saileko postua aukeratu nuen, gauza berriak ikasteko asmoz. Aste honetan bertan hasi naiz lanean”.





## IDOIA AZPILIKUETA, artisaua

// Semeak Eroskin egiten du lan eta bera eta ingurukoak babesteko hasi nintzen maskarak egiten, guraso nagusiak ere baditulako eta be-

raiekin egon beharra dudalako. Supermerkatuetako langileak ez zeudela behar bezala babestuta ikusita egin nuen nire ekarpena. Semeak esan zidan lanerako jantzi gehiago eman zizkietela, arropak egunero garbitzeko esan zietelako. Aldagelak erabiltzeari laga eta etxetik uniformearekin joan behar zutela ere agindu zieten. Baina bestelako babesik ez zeukaten, eskularruak bakarrik. Maskarilak nola egin azaltzen zuen bideo bat bidali zieten enpresatik. Umeei ipurdia garbitzeko toallita horien moduko materiala zerabilen, baina, bideoak. Nire artean pentsatu nuen horrek ez ziela emango inongo babesik. 'Iker egon zaitez lasai, neronek egingo dizut eta maskarilla bat' esan nion semeari. Facebooken ikusi nuen Donostiako patronista batek, Asun Dominguezek, tutorial bat egin zuela, maskarilak norberak egiteko patroia eta guztikoa. Neurea egin eta oso ondo geratu zitzaigula ikusita, nagusiari komentatzeko esan nion semeari. Hala, Maalako Eros-

kiko langilentzako maskarilak egiteko konpromisoa hartu nuen. Materialarekin izan nuen, baina, arazo handiena. Tela egokiak, lodiak, baneuzkan etxean; ez, ordea, goma nahikorik. Ingurukoei Whasapp bidez eskatu nien eta Amazon bidez erosi ere bai, baina ez zitzaidan eskaria ailegatzen. Orduan, Karkizanakoekin eta Pitxintxukoekin harremanetan jarri nintzen, gomak eskuratzen lagun ziezadaten. Metro dezente eman zizkidaten eta kobratu gabe gainera. Doakie hemendik nire eskerrik beroena. Behin gomak nituela, bukatu nituen maskarilak eta lortu nuen Eroskiko beharginak babestea. Izugarri eskertu zidaten. Alfonbra gorria jartzea bakarrik falta izan zitzaien. Pentsa, oraindik ez dituzte jaso enpresak agindu zizkien maskarillak. Orain beste batzuentzat ari naiz egiten, eskatu ahala. Zerrenda bat daukat egina eskatzaileekin. Baina egin kontu goizez nire lanean aritzen naizela eta arratsaldeak ematen ditudala maskarillak egiten. San Jose bueltan hasi nintzen, eta guztira, 100 bat maskarilla egin ditut. Denak oparitu ditut. Materiala daukadan bitartean jarraituko dut; eta espero dut hau dena bukatuta egotea materiala amaitu aurretik... Beste artisau batzuk ere badabiltza maskarillak egiten Elgoibarren eta Mendaron eta txalotzekoa da euren lana. Era berean, aipatu didate Maskarilla Solidarioa jarri dutela martxan Eibarren. Itxura denez, jostunak eta josten dakitenak batu dira eta Udalak erosi dieten materialarekin ari dira egiten maskarilak herrian, dendariak eta zaharren egoitzetan lan egiten dutenak babesteko”.





“Mendaroko ospitalak ez dauka egoera normalean izaten duenaren antzik une honetan, eta langile guztiok moldatu behar izan dugu egoera berri honetara. Hau guztia ezezaguna da denontzat, eta egunetik egunera ari gara ikasten. Garbiketa lanetarako ere ikastaroak egin behar izan ditugu lan arriskuen prebentziorako arduradunarekin: EPLa jantzi eta kentzen ikasi behar izan dugu, garbiketarako produktuak nola erabili behar ditugun, eta koronabirusarekin kutsatuta dagoen gaixo baten gela garbitu ostean zer egin behar dugun material horrekin.

## GEORGINA LOPEZ, ospitaleko garbitzailea

Gela horietan erabili eta botatzeko trapuak erabiltzen ditugu, eta fregona eta ontzia gela bakoitzerako bat erabiltzen dugu. Garbiketa amaitu ostean, material batzuk garbitu egiten dira, eta ikasi behar izan dugu nola garbitu behar diren. Material hori guztia garbigailuan sartzeko ere jantzi berezi bat ipini behar izaten dugu, bata bat, maskara, betaurrekoak, eskularruak... Ezin dugu ezer ukitu. Horrez gain, koronabirusarekin zerikusia duen guztia poltsa gorri baten sartu behar izaten dugu, eta behin poltsa gorri horietan dagoena garbitzera botatzen dugunean, poltsa hori bera beste poltsa gorri batean sartu eta edukiontzi berezi batera botatzen dugu. Ardurua handia daukagu une honetan garbitzaileok. Ni momentuz lasai nabil lanean, badakit ospitala arrisku gune bat dela, baina uste dut Mendaroko ospitalean babes neurriak ondo hartzen direla. Segurtasunez lan egitea gustatzen zait, eta zorionez, Mendaron betetzen ditugu segurtasun neurriak. Beldurrik ez daukat, baina errespetua bai. Gaixotasun berria da, eta kontuz ibiltzea da gogokigu. Orain arte koronabirusa zuten gaixoak bakarka egoten ziren logeletan, baina gaixo kopurua handituz joan da eta orain gela batzuetan binaka daude. Horrek gure lana ere zaildu egiten du, espazio gutxiago geratzen zaigulako, adibidez ohe artean fregona pasatzeko. Arduraz jantzi behar dugu EPLa gela horietan sartzeko, eta gero oso garrantzitsua da jantzi berezi hori ondo kentzea. Egunero ari gara zerbait ikasten”.



## ANDER SORALUZE, amama zaharren egoitzan daukan herritarra

Soraluzeko zaharren egoitzan bizi da Ander Soraluzeren Samama Eusebi, eta koronabirusaren gaitza zabaltzen hasi zenezik ezin izan dute amama bisitatzen joan: “Normalean astean behin joaten gara amama bisitatzen. Umeekin joaten gara, amari poz handia ematen diolako umeak ikusteak, baina zaharren egoitzetan koronabirusaren protokoloa ezarri zutenean, bisitak mugatu egin zituzten. Pertsona bakarra joan zitekeen bisitan, eta baimen hori nire anaiari eman zioten. Handik egun batzuetara,

protokoloa gogortu zuten, eta ordutik, bisita guztiak debekatuta daude. Orain, beraz, telefonoz edo bideokonferentziaz hitz egiten dugu amamarekin. Hitz gutxikoa da gure amama, eta ez da erraza pantaila baten atzetik berarekin hitz egitea. Gure etxean, gainera, Internetarako konexioa ez da ona, eta horrek zaildu egiten du elkarrizketa. Baina amamari umeak ikusteak egiten dio ilusio handiena, eta horretarako behintzat balio digu. Egia da umeek ere ez diotela asko hitz egiten, baina ikuste hutsa asko da amarentzat. Zahar etxeko zaintzaileari kontatzen dio non bizi garen, nola daukaten umeek izena eta berak laguntzen dio elkarrizketan. Azkeneko aldia anai, amama eta hirurok batera hitz egin genuen, bakoitza bere etxetik eta elkarri gauza askorik esan ez genion arren, pozik ikusi genuen. Ondo ikusten dugu amama, ondo zainduta dago eta alde horretatik lasai gaude. Honek luze joko duela dirudi, baina amama lasai ikusten dugu, eta horrek lasaitu egiten gaitu gu ere. Emakume lasaia da bera, sekula ez da haserretzen, ez da kexatzen eta ondo moldatzen da egoera guztietara. Momentuz zahar etxean ez daukate aparteko arazorik, ondo daude denak eta espero dugu koronabirusik ez sartzea. Hau dena bukatzen denean joango gara beriz”.





### LEIRE URBIOLA, Tantaka tabernakoa

// Tabernak ixteko agindua etorri zenetik, ERTEn gaude. Hamar langile dauzkagu, eta ez ditugu kaleratu. Gure asmoa hau dena bukatzen denean beraiekin jarraitzea da, eta horretarako ahalegin guztia egingo dugu. Gu autonomoak gara, eta hileroko gastu guztiak ordaintzen ari gara momentuz, diru-sarrerarik

gabe. Pentsa, musika jartzeagatik ordaintzen dugun kuota ere kobratu digute, taberna itxita dagoen arren. Aholkulari enpresa baten esku laga dugu gestioa, eta egia esan ez dakit oso ondo zein laguntza dauden. Eskatu ahal dena eskatuko dugu, baina ez dakit zer etorriko den. Baina kezkatuta eta triste gaude egoera honekin; oso gogorra da. Hala ere, ni baikor nago eta espero dut konfinamendua amaitzen denean lanean hasteko baimena emango dutela. Kontua da nolakoa izango eten den lanera buelta hori. Ez dut uste denok batera hasiko garenik. Nire senarrak dio honek luze joko duela eta maitzean ere lanik egin gabe egongo garela oraindik. Ez dakigu ezer. Egunero gauza berriak esaten ari dira, neurri berriak hartzen dituzte egunetik egunera, eta ezjakintasun egoera batean bizi gara. Guk bi aste daramatzagu lanik egin gabe, itxita, baina batzuk ez dira hasi kezkatzen enpresa handiak itxi dituzten arte. Negozio txikiak ahaztu egiten zaizkie. Koronabirusak gogor eragingo dio ekonomiari eta kostatuko zaigu zulotik irtetea, eta irteten garenean, ikusi egin beharko da nola irteten garen.



### MARI JOSE ESTIBARITZ, Pitxintxu

// Egunero joaten gara dendara Izaskun eta ni, goizez, eta batez ere administrazio lanak egiten ditugu. Horrez gain, brodatze lanak aurreratzeko eta tapaukak egiteko aprobeztatu dugu denbora. Lehenengo hamabost egunetan mugi-

mentu handiagoa zegoen, eta hornitzaileei egiten genien harrera, baina orain, askoz jende gutxiago dabil lanean, eta ez daukagu apenas jarduerarik. Jendearen eskariak jasotzen ditugu sare sozialen bidez edo telefonoz, baina dendan daukagun materiala soilik saldu dezakegu, ez dugulako ezer berririk jasotzen. Eskaera egin digunak erosketaren bat egitera irteten denean abisatzen digu, pertsiana jasotzen diogu eskatu duena emateko eta txartelarekin kobratzen diogu. Baina oso-oso eskaera gutxi ditugu, hutsaren hurrengoa. Gehiago ari gara denda prestatzen, gero zabaltzen dugunerako. Guk espero dugu berri zabaltzen dugunean jendeak kontzientzia hartzea denda txikiek bizi dugun egoeraz. Orain ere saltoki handiekin ezin dugu leihatu. Amazon zabalik dago eta liburuak saltzen ditu, eta beste saltoki handi askok ere bai. Jendea erosketak egitera joaten denean han erosi dezake liburu bat, baina gu, aldiz, itxita gaude. Egoera ez da erraza, baina animoso gaude, eta espero dugu laster irekitzea".

**BARREN sare sozialetan**




facebook.com/barrenaldizkaria

twitter.com/barreneus

instagram.com/barrenaldizkaria





# Hezkuntza sistemaren ezinak

**Martxoaren 12an Gipuzkoako eta Bizkaiko ikastetxeak ixteko erabakia hartu zuen Jaurlaritzak, egoeraren larriaz jabetuta [Hilaren 9an itxi zituzten Araban]. Hamabost egunerako laga zituen Jaurlaritzak bertan behera aurrez aurreko eskolak orduan, baina martxoaren 18an luzatu egin zuen eskolen etetea, "hurrengo berrira arte". Hala ere, ordura arteko gidalerroek indarrean segituko zutela nabarmendu zuen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak. Mezua garbia zen: Eskolak itxita daude, baina ez dira opor egunak. "Ahal den neurrian" normaltasunari eutsi behar zitzaiola ohartarazi zuen sailburuak, baina egoera normal bateko erritmoari egoera anormalean nola eutsi zehaztea ikastetxeen esku laga zuen, edo nahiago bada, irakasleen euren esku.**

- AINARA ARGOTIA -

Osasun agintarien gomendioak zorrotz bete behar ditugu, jardueren normaltasunari ahalik eta lasterren berrekin ahal izateko. [...] Irakasleek material didaktikoa prestatzeko eta ikasleen eskura jartzeko betebeharra dute, eta ikasle eta gurasoek ahalegina egin behar dute ikasleek egunero etxean ikasteko ohiturari eutsi diezaioten". Agindu hori eman zuen Cristina Uriarte Hezkuntza sailburuak. Norabidea markatu zuen, baina neurririk zehaztu ez, hori guztia bideratzeko. Osasun publikoa lehenetsi zuen Jaurlaritzak neurri horrekin, baina Hezkuntza Sailaren aginduaren bigarren zatiak izan du eraginik irakasleen eta konfinamenduaren eraginez etxetik irten ezinda dauden milaka ikasleren buru-osasunean, bai eta haien gurasoenean ere. Egoera berri honetan "galduta" sentitzen dira irakasleak eta eskolatik markatutako erritmoari jarraitzeko zailtasunak dituzte ikasle eta guraso askok, arrazoiz ezberdinentzat. Estresa, egonezina, ziurgabetasun eza, antsietatea, kezka eta beldurra sarri aipatzen diren berbak dira gai honetaz ari garela eta sentimendu horiek ez dirudite lagunik onenak ikaste prozesurako. Abiapuntu horretatik, hiru galdera egin dizkiegu profesionali: batetik, nola egin egingarri Hezkuntza Sailetik eskatutakoa? Alegia, nola mantendu egoera normal bateko

erritmoa egoera anomaloan?. Bi: Bidea hori al den; hau da, curriculum akademikoari eutsi behar ote zaion derrigorrezko etxealdi honetan. Eta hiru: zer den haien ikuspuntutik lehenetsi beharrekoa.

Olatz Azpiazu (Mutriku, 1974) musika irakaslea da Mendaro Ikastolan, eta aitortu du "kezka handi bat" darabilena egunotan buruan: "Gu ahalegintzen ari gara gure lana ahalik eta zorrotzen eta modu disziplinatuenetan betetzen, baina jakin gabe ondo edo gaizki ari garen. Saiatzen naiz egoera arraro egonetan egokienak izan daitezkeen zereginak proposatzen ikasleei familian egin ditzaten, baina ez dakit familiak guk egiten dizkiegun eskaerei erantzuteko moduan dauden, ez emozionalki eta ez bestela. Ez dakit bidaltzen ari naizen lanak egokiak diren edo horien ordeztan curriculumari lotuago dauden lanak bidali behar ditudan". Bat dator Mari Seara (Deba, 1972). "Beste edonor bezain galduta sentitzen gara. Kulerotan harrapatu gaitu egoera honek", dio. Haur Hezkuntzako irakaslea da Seara Mendaron, eta goragoko zikloko profesionalek presio handiagoa izan dezaketela aitortu arren, uste du egoera honetan "iparra galduta" ari direla denak ere, helburu akademikoei "gehiegizko" garrantzia ematen. "Lanean ja-

rraitzeko agindu digute eta ari gara, baina zer ari gara egiten? Zein da irakasleon eginbeharra? Ari gara lanak edo proposamenak bidaltzen eta horrek nolabait lasaitzen gaitu pentsatzu zer bait egiten dugula, baina ez dakit, egoera honetan, hori den gure egitekoa edo horrek izan behar duen lehentasuna". Francesco Tonucci pedagogoak du erreferentetzat Searak eta haren hitzak bere eginez dio irakasleentzako lana haurren gaitasunak potentziatzea dela gehiago; "konpainia egitea ikaste-prozesuan eta zalantzak argitzea", eta itxialdi honetan, bere lekua topatu ezinda ikusten du irakasleak. "Haurrak familian daude, gustura, egoera honetan normalak diren kasketa batzuk tarteko, eta gu betiko ereduarekin ari gara, baina iruditzen zait eduki akademikoak betetzeak ezin duela orain lehentasuna izan. Balia bide eta ezaugarri jakin batzuk betetzen dituzten familientzako lan-egiteko modua da darabilgun hau, baina denak kontuan hartzea dagokigu".

## FAMILIAN EGOTEKO GARAIA

Premisa horretatik abiatu beharra ikusten du Aitziber Zelaiak ere (Mendaro, 1976). Behar berezietako ikasleentzako hezitzailea da Mendaro Ikastolan eta Eibarko Urkizu eskolan, eta garbi du egoera honetan ikasleentzako eta familientzako beharrak beste batzuk direla. "Irakasle asko guraso ere bagara eta geure azalean bizi dugu egoera honen gogorra. Asmatu ezinda ari gara. Etxetik dihardugu lanean, umeak dauzkagu bueltan atenditzeko eta etxeko ardurei ere erantzun behar diegu. Eta etxean gaudela azpimarratzen dut, etxea delako denok seguru sentitzeko dugun lekua, eta hor, etxeko kanpoko ardurei erantzuteko eginahalean ari gara eguneko ordu askoan, tamainako prestakuntzarekin, honek denok harrapatu gaituelako jokoan kanpo. Eromena da".

Horren harira Searak dio "elkarri traba egiten" ari direla une batzuetan irakasleak eta familiak, uztarri berean beharko luke tenak. "Gu aktibo mantendu behar gara, hala agindu digute-lako, baina ez dakit etxeetan prest dauden aktibotasun maila hori mantentzeko. Sistema mantentzen dihardugu, begi bistan gelditu denean sostengu onik ez duela". Bereziki ikasle batzuekin akordatzen dela dio, hamabost egunean ez duela lortu haiekin harremanetan jartzetik. "Ez dakit nola bizi duten hau dena, nola dauden animoz, zer falta duten... Hezkuntzak erabaki du modu honetan funtzionatzea, baina 'denentzako kafea' da hau eta ez da justua". Azpiazuk ere garbi du zerk duen lehentasuna: umeak ahalik eta ondoen egotea emozionalki, horrenbeste egunez hogeita lau orduz etxean egotea ez delako osasuntsua inorentzat, eta are gutxiago umeentzat. "Zama psikologiko hori nola arindu pentsatzea dagokigu, etxeko egonaldia ahalik eta eramanagarriena egitea, emozionalki ondo dagoen ikasleak guk eman beharrik gabe ere ikasten duela", esan du horren harira. Horregatik, familientzako lanak bidaltzea erabaki du berak, baina bueltan zer bait jasotzeko exijentziarik jarri gabe. Berdin ari dira Haur Hezkuntzan, Searak azaldu duenez. "Familientzako garaia da. Telefonoz jarri



naiz harremanetan ikasleekin eta haur gehienak gustura daude, oinarriko beharra aseta dutelako. Gurasoak ondoan dituzte eta hori da haurrak behar duena. Gurasoekin duten interakzio horretan ikasten ari dira". Horren harira gogoeta bat ere egin du. Konfinamenduak barrura begiratzeko aukera eskaini duela dio eta aukera hori baliatu behar duela jendarte honek. "Nagura itzuli gara, hartza kobazuloan dagoen garaira, eta hartu dezagun astia gelditzeko, pentsatzeko eta sistema pixkat zalan-tzan jartzeko".

## EBALUAZIOA

Ikasturte hau ebaluatzen moduak kezkatzen ote dituen galderari ezetz erantzun diote hirurek. Bigarren ebaluazioa bukatu berri harrapatu ditu irakasleak konfinamenduak, ebaluazio-bilerak guztiak egin gabe, baina beren mailetan behintzat ebaluatu beharrekoa ebaluatzen moduan daudela uste dute. Hitz batean homologagarria ikusten dute ikasturtea, koronabirusa-gatik behar baino aurretik amaitu behar izanda ere.

Logikak dio, eta hala aitortu dute orain arteko hiru lagunek ere, goragoko mailetan beste ardurak batekin biziko dutela hau irakasleek. Idoia Narbaiza (Eibar, 1974) Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaslea da Irungo Hirubide institutuan, eta aitortu du badela kezkatzen duen kontu bat. Uste du ikasturte honen balioa ezin dela beste ikasturte baten parekoa izan, baina aldi berean, iruditzen zaio beste askotan ere gelditzen direla programak amaitu gabe, eta halakotan egin ohi den bezala, badagoela aukera egin gabe gelditu dena memorian jaso eta hurrengo ikasturtean horri heltzeko. Astelehenean mezua jaso zuten zuzendaritzatik esanez Aste Santu ondorenean helduko diotela ebaluatzen modua zehazteari eta jarraibideen zain dago, eguneroko "zoroan" zentratuta. Gainerako irakasleek aipatu dituzten ezinak ditu Narbaizak ere. DBHko lehenengo hiru mailetan ematen ditu eskolak, eta Jaurlaritzak itxialdia agindu zuen egun berean zentroko zuzendaritzak zehaztutako plana jarraitzen du. Ikastetxeak itxeko agindua etorri zen egun berean bildu ziren Hirubideko zuzendaritzakoak eta gainerako irakasleak eta bi kontu adostu zituzten: batetik, eskolako plataforma erabiltzea ikasleekin eguneroko harremanerako, eta bestetik, ikasleentzako eguneroko lan-jarduna erdira ekartzea, ikusten zutelako etxean eta konfinamendu egoeran ezinezkoa dela eskolan beste ordu sartzea. "Sei irakasgai baldin baditugu, egunero hiru ikasgaitako lanak bidaltzen dizkiegu ikasleei eta 48 bat orduko tartea lagatzen diegu lanak egiteko", zehaztu du horren harira. Baina, lanak bidaltzeari ekin aurretik, zuzendaritzatik agindua jaso zuten ikasle guztiekin telefonoz harremanetan jartzeko, haien egoera zein zein jakitzeko eta eskolak zehaztutako lan-sistema jarraitzeko behar zituzten baliabideak ba ote zituzten jakiteko. "Ordenagailuz lan egingo gurela esan genien guztiei eta ez baldin bazuten, astelehenean, hilaren 16an, eskolatik pasatzeko, bila. Nire tutorepeko bik ez zuten. Bat etorri zen bila, eta bestea ez, eta desepzietzat





hartu genuen, ikasten jarraitu nahi ez duen 17 urteko ikasle baten kasua delako". Etxean Internetarako sarbiderik ba ote zuten ere galdetu zieten, jakina, eta bakarren batzuk izango ez zutela aurreikusita, zuzendaritzakoak Izarkom enpresakoekin ere jarri ziren harremanetan. Euskal Herriko telekomunikazio operadore kooperatiboa da Izarkom, eta ikasleek eskola birtualik galdu ez dezaten, sim txartelak banatu ditu eskoletara debalde, ikasleek konexioa izan dezaten. "Gure kasuan, baina, denek zuten konexioa etxean".

Beste ikastetxe batzuetako lankideek kontatutakoaren aldean, euren plangintza "zehatz batekin" abiatzeko aukera izan dutela azpimarratu du Narbaizak, baina, hala ere, aitortu du egunerokoan ez dutela errazik izan. Baliabide teknologikoak bermatuta izanda ere, ikasle guztiek ez dute trebetasun bera eta gurasoak ere oso perfil ezberdinekoak dira. "Betikoa da. Orain arte ondo ibili direnak, trebeagoak, disziplinatagoak... direnak eta gurasoak laguntzeko dituztenak ondo dabilta orain ere, baina ezinean dabilzanak arazo handiagoak dituzte orain", dio. Plataformari esker bidalitako lanen jarraipena ere egin dezakete irakasleek hein batean, baina horixe, hein batean. "Nik ikus dezaket bidalitako lana egin duten eta apuntatzen dut. Bidalitakotik 14 jarduera garrantzitsuenak baloratu ditut, eta gaur, bost edo gehiago entregatu ez dituztenen gurasoei telefonoz deituko diegu tutoreak eta biok, zergatik egin ez dituzten jakitzeko, arazoak asko izan daitezkeelako. Badaukat ikasle bat bederatzi lan dauzkana entregatu gabe, eta ez nik ez dakit honoa jota dagoen ere!". Horregatik oso garrantzitsua irizten dio telefono bidezko harremanari. "Guraso ere banaiz, eta alabaren kasuan irakasleak deitu zigun aurrekoan, bidali zituen proposamen batzuei ez genielako erantzun eta jakin nahi zuelako zergatik. Eta dei horiek asko eskertzen dira", gehitu du. Kontu bera na-

barmendu du Searak ere, telefonoz familiekin hitz egiteko beharra. "E-posta bidezko harremana ez zait nahikoa iruditzen. Ni neuk nahiago dut deitu, baina beharbada denok ez gaude prest ere. Bizitza pribatua ere sartzen da hor eta zaila da".

Irakasleak eurek ere zailtasun ugariarekin topatu direla nabarmendu du horren harira Narbaizak. "Asko ez geunden prestatuta modu honetara lan egiteko eta kosta egin zaigu oinarritzakoa ikastea. Eta sistemak berak ere ez zion ondo eusten gu denok batera lanean hasten ginenean. Goiz osoak eman ditugu plataforman lan bat eskegi ezinda, eta hori informatikoei eginahalak egin dituztela sistema egokia topatzeko". Zorramena izaten ari dela nabarmendu du, eta egoera horrek egiten ari diren horren gainean gogoeta egitera ere eraman ditu etxean bikotekidea eta biak. "Gure soldatak justifikatzeko egiten dugu hau? Geldituko bagina, zer gertatuko litzateke? Hau da behar dugun hezkuntza unibertsalaren eredu? Ez dakit, ez dakit; momentuz, zuzendaritzak agintzen didana egiten dut nik". Egoera, nolana ere, "oso zaila" dela aitortu du. 8 eta 5 urteko bi seme-alabaren ama da, irakasleak dira bera zein bikotekidea eta ezinik ez dute, beraz, seme-alabei etxeko lanekin laguntzeko, bitarteko teknologikoak ere badiutuzte telelanerako, eta ezagutza ere bai beste askok bestekoa, baina momentu askotan "itota" ikusi du bere burua. "Umeak berandu oheratzen ari gara, goizean goiz jakitea guk lan egin ahal izateko, eta txandak antolatu ditugu, gure lan profesionalak egin eta umeen beharrei erantzuteko, egoera honetan inoiz baino beharrezkoagoa dutelako umeek/ikasleek gurasoon laguntza. Bestetik, sistema honetan lan eginda, edozein unetan jasotzen ditugu ikasleen erantzunak eta galderak eta adi egotea dagokigu, behar diren azalpenak emateko. Ez da erraza. Irudipena daukat gure lana mila aldiz handiagoa dela orain".

## JABI MUÑOZ

♦ **'Eskolak itxita daude, baina ez gaude oportetan' esan zuen Hezkuntza sailburuak. Nola bizi duzue egoera hau?**

Bada, jende gehienak bezala, ziurgabetasun eta errespetu handiz. Egun gutxitan, urrutiko kontu bat zena hemen, Mendaron bertan, gertatzen ari den egoera distopiko batean bihurtu da, zientzia fikziozko film bat izango balitz bezala. Eskolari dagokionez, saiakuntza eta errakuntza bidezko ikaskuntzan gabilta. Dagoeneko hainbat egun pa-



*"Momentu honetan curriculumak da gutxien kezkatzen gaituena"*

3,7 ETA 9 URTEKO ALABEN AITA

satu dira eta nahiko argi daukagu zer egiten dugun eta zer egin nahi dugun. Interesgarria da familia barruan izan dugun bilakaera aztertzea: lehen egunean, *diskurtso ofiziala* egin genien neskei: 'Ez zaudete oportetan, eta antolatu egin beharko gara'. Gero, egoera larriagotuz joan da, eta Irantzuk eta biok nahikoa irakurri, hitz egin eta hausnartu ostean erabaki dugu akademikoa ez dela ezta urrutitik ere une honetan garrantzitsua. Orain, momentu berezi hau ahal dugun modurik onenean pa-

satzen dugu, batez ere familia osoaren behar emozionalei erreparatuz. Inor ez dago prestatuta egoera honetarako, gu ez gaude prestatuta, haurrak ere ez, irakasleak ere ez, eta ezta eskola ere.

♦ **Hezkuntzak hartu duen bideari egoia irizten al diozue?**

Hezkuntza-sistema etengabeko ekoizpena, lehiakortasuna eta adierazle kuantitatiboak modu obsesiboan eskatzen dituen sistema kapitalistaren funtsezko zutabea da. Uste dut Hezkuntzatik ezin dutela besterik egin, sistemaren parte direlako.

♦ **Ezinbesteko ikusten duzue egoera honetan curriculum akademikoak eskatzen duena betetzea? Bestela, nolakoa izan beharko luke eskolak ikasleekin daukan harremanak?**

Ez, zalantzarik gabe, ez. Curriculuma da gutxien kezkatzen gaituena. Nahikoa dute, etxean giltzapetuta egotearekin.

Gertatzen ari den guztia ulertu gabe, triste, urduri, beldurtuta, estututa daude, eta hala ere, benetako heroina gisa portatzen ari dira. Gure babesba behar dute, gure konpainia, gure maitasuna. Eta hori guztia egoera pribilegiatuan dagoen familia bat garela kontuan hartuta. Etxebizitza eroso dugu eta arazo ekonomikorik ez; teknologiarako sarbidea badugu eta gure alabei laguntzeko denbora eta eza gutza ere bai; imajinatu nola pasatzen ari diren etxebizitza txikitatzen bizi diren beste familia batzuk, teknologiarako sarbiderik ez dutenak, familia desegituratuak, aitona-amonak galdu dituzten haurrak...

♦ **Kezkatzen al zaitu egoera honetan zuen alabek bestela izango luketen ikaste-erritmoa baino mantsagoa eramateak?**

Ez nau kezkatzen; orain askoz gauza garrantzitsuagoak daude egiteko. Guk errazago egitea erabaki dugu: idaztea,

pixka bat irakurtzea, musikaz gozatzea, jolastea, dantzatzea; azken batean, gus-tura egotea.

♦ **Homologagarria iruditzen zaizue ikasten jarraitzeko eredu hau?**

Ez dut homologagarri ikusten, ez dut bidezko ikusten, ezta jasangarri ere. Inor ez dago prestatuta.

♦ **Koronabirusaren krisiagatik ikasturtea martxoan amaitzea baztertu egin du momentuz Espainiako Gobernuak, baina ez du baztertu behar baino aurretik amaitu behar izatea. Badira, ikasturtea errepikatu beharra ikusten dutenak ere. Zer esango zenuke?**

Ez nau batere kezkatzen horrek. Sakoneko eztabaida beste bat da: zer gizarte mota nahi dugun, ea ekoizpenean eta irabazietan oinarritutako gizarte lehiakor bat nahi dugun edo zainketetan oinarritutako gizarte bat, non inor ez den atzean geratuko.

## ARKAITZ URANGA



BATXILERGOKO IKASLEA,  
AURTEN SELEKTIBITATEA EGINGO DUENA

♦ **Nola bizi duzu egoera hau?**

Ziurgabetasun handiarekin, bereziki hasieran, eskola itxi zutenean. Hirugarren hiru hilekoa hasi berritan itxi zituzten ikastetxeak eta ia gaitegi osoa geneukan eman gabe. Egia esan kostatu zitzaidan egoera bera onartzea eta asimilatzea ere, eta esango nuke nire ikaskideek ere antzeko sentimenduak izan zituztela. Selektibitatea egin behar dugu aurten, eta oso urduri jartzan ninduen ez jakitzeak noiz egin ahal izango genuen azterketa eta nola prestatu behar ginen horretarako. Irakasgai asko dira, gaitegi zabala, eta kezka hori baneukan, bai. Orain lasaiago nago. Badakigu noiz egingo dugun selektibitatea eta egunero ari gara lanean etxetik. Egia esan lanez lepo gaude, aspertzeko astirik gabe. Aldaketa handia izan da denontzat hau. Iruditzen zait irakasleak ari direla ahalegina egiten, baina eurek ere ba-

*“Orain lasaiago nago. Badakigu noiz egingo dugun selektibitatea eta egunero ari gara lanean etxetik”*

dute kezka. Beraiei ere ez zaie erraza izango hau kudeatzea, ikasle bakoitza mundu bat delako eta denok ez dauz kagulako baliabide berdinak. Irakasle guztiak ere ez dira berdinak, egia esan, baina gehienak saiatzen dira animoak ematen eta laguntzen.

♦ **Nolakoa da zuen egunerokoa?**

Irakasleekin harremanetan gaude Internet bidez eta lanak bidaltzen dizkigute. Google meet, Zoom eta antzeko plataformen bidez bideo-deiak ere egiten dizkigute, eta irakasgai nagusietan, eskola birtualak ere ari gara jasotzen. Irakasle askok orain arteko ordutegia jarraitzen dute, eta lehen historia 13:00etan ematen bagenuen eskolan, orain ere, ordu horretan historia ordua izaten dut etxean.

♦ **Zer ikasi nahiko zenuke gero?**

Ez daukat guztiz argi, baina Itzulpen-gintza edo Publizitate ikasketak egin nahiko nituzke eta hurrenez hurren 8,6 eta 8,9ko nota eskatzen dute hamalaukotik.

♦ **Zuen belaunaldiak gauza bat du ona egoera honetan: teknologian trebatutakoak zaretela. Beharbada irakasle batzuk baino gehiago ere bai, ala?**

Bai, bai, hori hala da, eta gurea abantaila handia da.

## Botika ordutegiak 09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Alarma egoerak irauten duen bitartean, Elgoibarren guardiako botikaririk ez dagoen jai egunetan Yudego farmazia zabalik egongo da, 10:00etatik 13:00etara. Momentuz, apirilaren 5ean, 12an eta 13an.

### GUARDIAK

Egunez: 09:00-22:00

Iluntzean: 20:00-22:00

Larunbatak: 9:00-14:00 (\*)

3 BARIXAKUA	4 ZAPATUA	5 DOMEKA	6 ASTELEHENA	7 MARTITZENA
Egunez Arriola	Egunez *Fernandez / *Barrenetxea	Egunez *Fernandez	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Arriola	Iluntzean ---	Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Garitaonandia
8 EGUAZTENA	9 EGUENA	10 BARIXAKUA	11 ZAPATUA	12 DOMEKA
Egunez Barrenetxea	Egunez Garitaonandia	Egunez Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti / *Garitaonandia	Egunez *Oruesagasti
Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean Garitaonandia	Iluntzean ---	Iluntzean ---
13 ASTELEHENA	14 MARTITZENA	15 EGUAZTENA	16 EGUENA	17 BARIKUA
Egunez *Oruesagasti	Egunez Yudego	Egunez *Oruesagasti	Egunez Barrenetxea	Egunez *Ibañez
Iluntzean ---	Iluntzean Yudego	Iluntzean Arriola	Iluntzean Barrenetxea	Iluntzean Yudego

\* Fernandez:  
Herriko enparantza, 4  
Garagartza (Mendaro)  
943 756 142

\* Ibañez:  
Rekalde, 1 (Soraluze)  
943 751 638

\* Oruesagasti:  
Kalebarren, 9 (Soraluze)  
943 751 384

**Urte guztian, gauzez: 22:00-09:00**  
Barandela - Ziriako Agirre kalea, 4 (Eibar)  
943 206 984




Argazkiak apirilaren 15a eguerdia (12:00ak) baino lehen bidali behar dira [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus) e-postara.



Zorionak, izeko **Miren!**

Hainbeste urtian elkarrekin garai on eta ez hain onetan ta oinguan elkar ikusi gabe pasa behar dugun hontan, gure deiadar eta desioa hel bedi era guztietan gure maitasun ta besarkadakin zure 97 urtebetetzean.

Laster elkartuko gara berriz!



Zorionak, **Amaia** eta **Miren!** Jarraitu orain arte bezain jator! Muxuk familiako guztion partez.



Zorionak, **Ane!** Patxo handi bat familiako guztien partez!

## Martxoaren 25tik 1 era hildakoak

**Luisa Ramirez Flores**

86 urte. Martxoaren 31n hil zen. Mendaro.

## OHARRA

**Aste Santua dela-eta, datorren astean ez dugu BARREN astekaria kaleratuko. Hurrengo zenbakia apirilaren 17an jasoko duzue.**



Aste hauetan goizez zabalik!  
Etxez etxeko zerbitzua eskaintzen dugu.

[www.muruamendiaraz.com](http://www.muruamendiaraz.com)  
**943 740 345**



# EUSKARA SUSTATZEKO UDALAREN DIRULAGUNTZAK

**Eskaerak aurkezteko azken eguna urriaren 30a izango da:**

- UEUK, EHUk eta Hik Hasik euskara hutsean antolatutako ikastaroak egiteko dirulaguntzak.
- Elgoibarko establezimenduetako errotulu nagusia euskara hutsean edota irudi korporatiboa euskaraz edo ele bietan jartzeko dirulaguntzak.
- Herriko enpresetan euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak.
- Elgoibarko Udal Euskaltegitik kanpo euskara ikasteko dirulaguntzak, baita barnetegietarako ere (laguntza hauek eskatzeko azken eguna irailaren 25a izango da).

**Eskabideak eta beharrezkoak diren agiriak aurkez ditzakezte interesdunek HAZEN,**  
Herritarren Arreta Zerbitzuan (Santa Ana kalea 2, behea), edota telematikoki Udalaren webguneko Herritarren Atarian.  
**Informazio osagarria lortu nahi dutenek Euskara Sailean izango dute horretarako aukera (Tel.943 744 366, euskara@elgoibar.eus).**



administradores  
Consejo Vasco de Colegios  
de Administradores de Empresas  
Federación Española Administradores  
Locales Económicos



**ROSA Ma  
PINTADO**

*Etxaldean Administrazioarako-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749*

**660 969 679**  
**rosapf@telefonica.net**


**Gure komunitatean, ur beroaren eta berogailuaren galdara aldatzea erabaki da. Jakin nahi nuke ea jabe guztiak ordaindu behar dituzten horren gastuak.**

Lehenik eta behin, zerbitzu komuna den eta galdararen ordezkapenaren ordainketa jabe guztiak eska dakiekeen ala ez jakiteko, zerbitzua ematen dieten instalazioek izaera duten jakin behar da. Hori gertatuko da, baldin eta haien prestazioez baliatzen badira jabekide guztiak, nahiz eta horietakoren batek ezin baliatu. Kasu gehienetan merkataritza-lokalek berogailurik ez dute izaten. Dena dela, ohiko kasua ez bada ere, higiezinaren dokumentazioan instalazio horietako batzuk pribatiboak izatea ezar daiteke, banakako jabe baten edo batzuen zerbitzura. Legearen erregulazio berriak instalazio pribatiboen eraginkortasun energetikoa hobetzeko akordioak egiteko ezarritako neurriak lehendik ere. Instalazio horiek konpontzeko eta ordeztzeko ekintzak, eta haien kostua banatzekoa polemikoak izan ohi dira. Kontua da zehaztea ea zerbitzuaren onura jasotzen duten jabeek bakarrik ordaindu behar duten matxura arruntaren konponketa. Amaitzeko, instalazioa edo instalazioaren funtsezko elementuak ordeztu behar badira, jabekide guztiak ordaindu beharko dute haren kostua, instalazioez edo zerbitzuaz gozatu edo ez, nahiz eta estatutuek funtzionamenduari dagozkion kontsumo eta mantentze gastuak kendu.

**ONDORIOA: Matxura orokor batengatik edo haren amortizazio materialagatik funtzionatu ezin duen berogailu-galdara bada, eta horren ordez beste bat jarri behar bada, higiezinaren jabekide guztiak finantzatu beharko dute gastu hori.**



**AHOLKULARI KOLABORATZAILEA**  
San Bartolome, 2



I. URTEURRENA

*Adoración Garrido Navarro*

2019ko apirilaren 9an hil zen 78 urte zituela.

*"Inoiz baino biziago,  
beti gure bihotzean"*

Zure familia



# Covid-19 Osasun Larrialdia

**Euskadiko tokiko saltokiak,  
funtsezko jarduerak irekita jarraitzen dute.**

## **Mila esker!**

Guztiei egunero pertsiana igotzeagatik.

## **Mila esker!**

Hurbiltasunez eta profesionaltasunez  
arreta emateagatik.

## **Mila esker!**

Zuen lana ezinbestekoa da.

## **Mila esker!**

Euskadiko tokiko  
saltokietako pertsoneri.

## **Mila esker!**

Bertan egoteagatik zuen  
beharra daukagunean.

Tokiko erosketa, egin kontsumo  
arduratsua, zero xahutze.

*Euskadi, auzolana, bien común*

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

TURISMO, MERKATARITZA  
ETA KONTSUMO SAILA

DEPARTAMENTO DE TURISMO,  
COMERCIO Y CONSUMO

#EuskadikoSaltokiak

#etxetikhurbil



# MILAR BIRE

## EZOHIKO GUTXIENENKO ZERBITZUAK

Behar-beharrezko etxetresna elektrikoak.  
Ahal den neurrian, etxez etxeko zerbitzuari eutsiko diogu.  
Arreta ematen jarraituko dugu telefono zenbaki honetan:

# 943 741 487